



_elkarrizketa:
UNAI ALBIZUA > “Athleticen jarraitzea da nire ametsa, eta horren alde borrokatuko dut” 12. or
“Lehenengo mailan, munduko jokalaria onenak daude, minutuak urrea dira”

Jendartea

Euskararen ezagutza maila hazi egin da azken bost urteetan 7. or.

Kultura

Eleberria idazteko Igartza Saria jaso du Mikel Ayllon audioarrak 10. or.

Iritziak:

TXEMA

URKIJO 2. or.

MIKEL

KORMENZANA 6. or.

MAIDER

IGLESIAS 7. or.

KOLDO

ULIBARRI 11. or

KEPA SOJO 10. or.

ITZIAR

URKIJO 16. or

aiaraldeia



Aiaraldeko hamabostekaria
 2013 /// Urriak 3 ///
 OSTEKUNA
 1º alea ///
 Doan ///
www.aiaraldeia.com

Guardian eta Tubacex: Enpresa handiak mugimendu estrategikoen atarian



Argazkia: Iban Pagalday

ERREPORTAJEA: Agroekologia Tokiko eta garaiko produktuen ekoizle kopurua nabarmen igo da eskualdean. **ELKARRIZKETA: Marijo Gurutxaga** 8-9 or.

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
 JANTZI ZERBITZUAK
 MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2 LAUDIO
www.grafiksarea.com
info@promo-grafik.com
 Tel: 94 672 65 43
 M: 615 75 85 92



GUREKIN
 ERE
EUSKARAZ!

ESKA IEZAIGUZU BEHAR DUZUN PRODUKTUA ETA LORTUKO DIZUGU///

KAMISETAK, OPARIAK,
 USB-AK, KOPAK, POLTSAK...
 SERIGRAFIA, BORDATUA,
 BINILOA, INPRESIO DIGITALA

_iritzia



Txema
Urkijo Azkarate
ABOKATUA

_Balkoitik

Catalunya, ikasteko aukera

Azken aste hauetan ia ezinezkoa izan da egunkari bat ireki edo telebistako albiste-gi bat ikustea Kataluniaren eta garatzen ari den burujabetza-ren aldeko prozesuaren berri izan gabe. Eztabaida zinez liluragarria da ematen ari dena, gizarite demokratiko eta moderno batentzat erabakigarriak diren gaietan eragin handia duelako: kolektibitate baten eraketa politikoa, bere esparru politikoaren egonkortasuna eta balizko aldetak, herrien eskubideen balioa printzipio demokratikoaren aurrean -edo ondoan-, identitateen arteko gatazka edota jokoan dauden interes ekonomikoak.

Biolentziarik eza alde batean utzita -eta hau gutxietsi gabe- euskal auziaren eta katalanaren artean nahikoa ezberdintasun daude interesatutako konparazioak egiteko tentazioa albo batean uzteko. Baina hori, oztopo izatetik urruti, pizgarri da, batez ere hilabete hauetan, azken Diada egunean antolatutako "Kataluniako Bidea" ekimenaren bueltan mahaigaineratu den eztabaida politiko eta intelektual ezin aberatsagoa xehe-xehe aztertze.

Hausnarketa eta eztabaida soseguz, sakontasunez, errespetuz eta zorroztasunez egin da, euskaldunok ere gai izan behar dugu gure etorkizunaren -tzat baliagarriak izango diren ondorio positiboak ateratzeko. Besteen esperientzietatik ikasi beharra dago. Ez da ematen duen bezain erraza.



Irantzu Arzuaga
Dendaria

Ez zaizkit gustatzen. Animaliak ikuskizunerako erabiltzea ez zait ondo iruditzen. Aretako asto lasterketa eta horrelako frogak; espektakulua dira. Tratuz harago -askotan jotzen baitituzte- astoari lasterketa batean aritzeak estresa suposatzen dio, zezen bati entzierroak bezala.



Jose Maria Isusi
Jubilatua

Niri ondo iruditzen zait horrelako gauzak egitea. Bestela, gaur egungo gazteek ez dute antzina nolako bizitza izan genuen ikasteko aukerarik. Astoa, kotxerik ez zegoenean lanerako eta garraiolarako tresna zen, saskiak alde bati jarrita erabiltzen genuen. Horrelako ekintzak mantentzen ez badira belaunaldi berriek ez dute iragana ezagutuko.



_GALDERA

Jaietan asto, aker edo idi probak egitea animaliei tratu txarrak ematea da?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita



Maite Benito
Irakaslea

Ez naiz animaliak probak egiteko erabiltzearen aldekoa. Hala ere, onartu behar dut idi probak ikusi ditudanean gustatu egin zaizkidala. Dena dela, batzuetan iraindu eta kolpatu egiten dituzte. Kasu horietan ez ditut gogoko, baina kirol bezala herrietan halako gauzak antolatzea interesgarria iruditzen zait.



Unai Llano
Tabernaria

Niretzat ez dira tratu txarrak. Aretako Asto lasterketa, adibidez, legea errespetatzen egiten da. Egia da jo egiten dituztela, baina zelaorekin bildutako egunkari batekin kolpatzen dia astoak. Nik froga egin nuen eta ez du minik egiten. Beraz, ondo iruditzen zait. Animaliak hiltzea, aldiz, ez.



Cristina Aguado
Irakaslea

Asto gainean jartzen badira, besterik gabe bai. Animaliei agintzen dienaren jarreraren arabera gauzak aldatzen dira. Asto lasterketa bat, bere osotasunean, ondo ikusten dut. Idi probak ez, mingarria izaten delako. Ez zaizkit gustatzen. Historikoki garrantzia izan dute era honetako ekitaldiek, baina animaliei min egiten zaien momentutik ez zaizkit gustatzen.

TWITTERen

#euskararenjaia

Euskal Jaia Laudion! Egund polita aurretik gaurkoa! **#ZurrutariakOnFire @AndoniAgirretxe**

Aurtengo Euskal Jaian bananduta bazkaltzea zentzugabekeri galanta iruditzen zait. Gauza ez ahal da euskaldunok batzea ta euskaraz hitz eitea? **@jkayesta**

@LaudiokoJaiakK @jkayesta bazkari hori garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa adb. eguneroko poteoan saiatzen bagara **#365egunEuskaraz @urtzai**

#epaiketaketan

9 gazte epaituko dituzte etxe huts bati bizitasuna ematearren. **@horibai23** tik elkartasuna **@AmurriokoGA** ri. Okupazioa aurrera! **#Epaiketaketan**

Aurrera **@AmurriokoGA!** Gaurko egunez ere, espazio hutsak auzolanaz herritarroi itzultzeko nahiak ez daitezela inoiz itzali!! **@apalotakoneskatxa**

> jarrai gaitzazu twitter-en
> izan berriemaile
@aiaraldea aipatuta

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Lehiola
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Audio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152



_argibideak

EGUNKARI HONETAN HAINBAT IKONO ETA KODE ERABILIKO DIRA EUSKARRI MULTIMEDIETAN JASOTAKO EDUKIETARA BIDEA ERRAZTEKO.

 **ARGAZKI BILDUMAK:** Ikono honek sarean argazki bilduma bat argitaratu dela esan nahi du. Testuaren bukaeran helbidea edo QR kodea erakutsiko dira.

 **BIDEOAK:** Ikono honek sarean informazioarekin lotutako bideo bat dagoela adierazten du. Testuaren bukaeran bideoaren helbidea edo QR kodea erakutsiko dira.

 **AUDIOAK:** Ikono honek sarean argazki bilduma bat argitaratu dela esan nahi du. Testuaren bukaeran helbidea edo QR kodea erakutsiko dira.

 **QR KODEAK:** Ikono hau sakelako gailuaren bitartez eskaneatu (horretarako aplikazioak erabilita) eta sareko gune batetara bideratuko gaitu; bideo batera, audio batera, web-gunera...

HIZTEGIA: Euskarazko irakurketa errazteko, eduki batzuen bukaerazentzat hitzen sinonimoak edo esanahiak azalduko dira.

+ INFO: Edukia osatzeko informazio gehiagarria azalduko da testuen bukaeran: hastag-ak, web-guneak...

_gutunak

Txakurrak mendian

Julen Ibarrola. *Artzaina.*

Babio inguruko artzainok ez ditugu otsoen ulurik entzuten ez txakur basatien erasorik jasaten, gure ahuntzak, behiak eta bereziki ardiak ziztu bizian segi eta kosk egiten dituztenak, izen politik dituzten etxe-txakurrak dira. Eraso horien ondorioz ardiak hil, zauritu, arkumeak galdu eta esne gutxiago ere izan dezakete. Ahuntzak eta behiak ere minduta agertzen dira. Urtean sarri gertatzen dira horrelakoak eta nahiz eta horiek atzematean mendian lo egin, oso zail izaten da horiek ekiditea.

Artzainok ezin dugu jakin noiz askatuko duten Argi, Neska, Beltza... mendian barrera edo belardietan.

Eta benetan lan gogorra da ardiak hilik topatzean horien erantzule den txakurraren jabearen bilaketa abiatzea. Babiok hainbeste mendizale erakarritako, badakigu ezin dugula mastinik izan arazo iturri itzela izango litzatekeelako.

Saia gaitzezen denok arduratsu izaten, etxe-txakurrak dituzten gehienak bezala, guk gure bizimoduarekin jarraitu ahal izateko.

_herriz herri

Laudio



Tren geltokiko plaza Laudio Udalak aurreikusitako proiektua Irudia: Laudio Udala

Tren geltokiko plaza eta Latorro auzoko tunela moldatuko dituzte

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Laudioko udalak tren geltokian eta Latorroko tunelean aldaketak egingo ditu. Batetik, irisgarritasuna hobetzea dute helburu. Bestetik, herritarren segurtasuna bermatzea.

Bi lanen eskaera aspaldikoa da. ADIF erakundearen baimen ida-

tzia jaso ostean, esleipenak egin eta lehiaketara aterako du proiektua udalak.

Obren hasiera 2014ko lehen hiruhilekoan izatea espero du Natxo Urkixo herriko alkateak. Azaldu duenez, lanak hiru fasetan egitea aurreikusi da.

Tren geltokiko aldaketak

“Tren geltokian irisgarritasuna bermatu behar da”, dio. Izan ere, gaur egun eskailerak baino ez dau eta elbarrituek ez dute normaltasunez bertaratzeko aukerarik.

Tunelari dagokionez igarobideko zabalera handituko dute.

Orain bi edo hiru metroko zabalera du: “Obren ondoren, zortzi metroko zabalera geratuko da. Horrekin erosotasuna eta segurtasuna emango diogu Latorro eta erdigunaren arteko loturari”.

Latorroko tunelaren egokitza-penerako trenbideko lau errailak txandaka moztuko dituzte. Horretarako, hiru etapa aurreikusi dituzte: “Lehenengo gutxien erabiltzen diren errailak moztuko dira, Latorroetik gertuen daudenak, tunelaren zati hori egokitzeko”. Hori bukatzean, bigarren fasea abiatuko dute, tunelaren irteeratik kioskoraino doana.

Azkeneko fasean Urduña eta Bilborako noranzkoan gehien erabiltzen diren bi errailak berbideratuko dira: “Tunelaren blokea egiteko hormigoia goitik sartu behar dira eta”.

Maestro Elorzako obrak

Bestalde, tren geltoki inguruan kokatuta dagoen Maestro Elorza kalea eraberritzeko asmoa dute.

Aurrez, Jose Matia kalea egokitu zuten. Finean, lurzorua aldatuko dute.

Eta, ibaiertzetik paseatzeko dagoen balkoia kendu. “URA erakundearen exijentzia izan da, ez baitute begi onez ikusten ibaiaren espazioa modu horretan okupatzea”, erantsi du Natxo Urkixok.

• **info:** <http://www.aiaraldea.com/albisteak/Laudio> (Obraren plano zehatzak jaso dira)

Santi Hernando urriaren 17an epaituko dute Madrilén, Herriko tabernen auzia dela eta

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez

Urriaren 17an Herriko Tabernen auziaren baitan 36 herritarren aurkako epaiketa hasiko da Madrilén. Bertan izango dira eskualdeko hainbat kide; haien artean Santi Hernando audioarra. Era berean, hiru egun lehenago abiatuko da, 40 gazte independentistaren aurkako epaiketa.

Hernandorentzat 10 urteko kartzela zigorra eskatu dute ETAko kide izatea leporatuta; nahiz eta berak akusazioak ezagutzen ez dituen frogetan sostengatuta dagoela dioen.

Epaketan Euskal Herriko 111 elkarte kultural daude daude inplikaturik, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Okondokoa barne.

Guztira, 150 pertsona inguru bilduko dira egoerarako espresuki moldatu den epaitegian: auziperatuek gain elkarrekin bakoitzeko arduradun legal bana.

Auzia 2002-an sortu bazen ere, Hernandok independentzia bezain zaharra izan daitekeela dio. Tes-tuinguru politiko hartan estatuak ezker abertzalearen adierazpen politikoa zen Herri Batasuna bizi-tza politikotik kanpo uzteko estratategian kokatzen du auziperatu laudioarrak, “dena ETA zenaren teoria maltzurtean oinarrituta”.

Urte hartan Garzonek deklaratzera deitu zituen, herriko taberne-ETA finantzatzeko zutela -eta alderantziz- argudiatuta. Inplikaturikotako elkarte kultural gehienak itxi eta ondasunak bahitu zituzten.

Auziperatu gehienek kargu desberdinak bete zituzten Herri Batasun. Hernandoren ustez, epaiketa honek, gazteen aurkakoarekin batera, Euskal Herrian urteotan martxan jarri den prozesua blokeatzea du helburu. Gainera, estatu espainiarraren mendeko politika agerian geratzen dela deritzo.

“Libre” dinamika

Epaketeierantzuteko “Libre” dinamika jarri dute abian. Zentzu horretan, Santi Hernandoren ustez jendearen konpromisoa eta militantziarekin soilik egin ahal zaio aurre egoerari, eta epaketak gelditze helburua erdietsi.

Horretaz gain, urriaren 26rako manifestazio nazionala deitu dute Bilbon.

Etxeko gizon eta emakumeen eguna ospatuko dute urriak 9an

ERREDAKZIOA | Aitor Fdez de Pinedo

Etxeko lanetan diharduten gizon eta emakumeen nazioarteko eguna dela-eta, bi kafe-antzerki emanaldi antolatu ditu Solastiar Elkarteak Oihala Zabaltzen taldearen eskutik urriaren 9an.

Emakumeen sustapenerako kultur talde laudioarrak antolatutako antzezpenek doako sarrera izango dute.

Ekitaldiak Lamuza parkeko 2. gelan, butakaz hornitutakoan, eskainiko dituzte. Bi aldiz egongo da saioaz gozatzeko aukera. Aurreneko emanaldia 18:30ean izango da. Bigarrena, aldiz, 19:30ean.

Solastiar emakume elkarteak zein Oihalak Zabaltzen antzerki taldeak hamaika urtetako eskarmentua bildu dute dagoeneko ekimen honen antolaketan.

_iruditan



Irailaren 28an ospatu zen Euskararen Jaia Laudio. Euskararen transmisioaren alde egindako lana aitortzeko alkatetik gisa lau eragile proposatu zituzten: bi euskaltegiak, bertso eskola eta Aiaraldea Komunikazio

Leihoa.



Argazki bilduma:
Aitor Burgoa



_herriz herri

Amurrio



Amurrioko AEKn irakasle izandakoak ekitaldian Argazkia: Izar Mendiguren

Euskaltegi berria jarri du martxan AEK-k Amurrion

ERREDAKZIOA | I Izar Mendiguren Cosgaya

Amurrioko AEK-k ostegunean aurkeztu zuen euskaltegi berria. Izan ere, 2011ko abenduaren 16an, haize ufada⁽¹⁾ batek teiltatua eraman zuen. Geroztik, herriko hainbat leku-

tan egon dira; nola Lucas Rey eskolan, hala Katekesian. Aurkezpenekitaldian egon ziren, besteak beste, Josune Irabien alkatea, Mertxe Mujika eta Asier Amondo AEK-ko orde-

kariak. Ekitaldira, Amurrioko euskaltegi ikasle eta irakasle oihak gonbidatu zituzten.

Urriaren 3tik aurrera emango dituzte klaseak euskaltegi berrian.

Matias Landaburun kokatuta dago. 438 metro karratuko azalera⁽²⁾ du; bi solairu eta sei ikasgela. "Beheko pisuan bulegoa, irakasle gela eta bi gela txiki daude. Goian 4 gela gehiago eta hiru komun", azaldu du Maite Benitok, Amurrioko AEK-ko, irakasleak.

Euskaltegi berriaren prestaketak 120.000 euroko inbertsioa suposatzen du. AEK-k 80.000 euro ordaindu ditu, eta udalak 40.000. "Hala ere, AEK-k gastu gehiago izan ditu, altxariak, kartelak...", erantsi du. Udalarekin sinatutako akordioan 15 urterako erabilera hitzartu dute. Alabaina, bost urtez luzatzeko aukera izango dute.

Eskaintza zabala

Aiaraldeko euskaltegia bi herri-tan kokatuta dago, nagusiki. Hala azaldu du Martin Garciak, Aiaraldeko AEK-ko arduradunak: "Laudionko euskaltegiak Laudion, Orozkon, Okondon eta Arakaldon sortzen diren taldeak hartzen ditu. Amurriokoak, Amurrio, Urduña, Artziniega eta Aiarakoak". Iazko ikasturtean 40 talde izan zituzten, guztira 364 ikasle. Amurrioko euskaltegiak asko jota⁽³⁾ 90 lagun hartuko ditu, taldeetan gehienez 15 pertso-

na bil baitaitezke.

Euskara ikasi nahi dutenentzat bide ezberdinak proposatu dituzte. Batetik, maila guztietarako ordutegi zabalak; goizez, arratsaldez edo biak tartekatuz. "Txandaka lan egiten dutenek posibilitatearen arabera goizez edo arratsaldez etortzeko aukera dute. Jende askok pentsatzen du txandaka lan egiten duenez ezin dela etorri. Aukera hori ere badago", argitu du Garciak.

Aiaraldeko euskaltegiak "homologatuak" direla-eta, egiaztatze frogan lehen zatiak bertako euskaltegiaren egingo dituzte: "Ikasleentzat leku lasaigarri eta konfiantzazkoa izatea lagungarria da, urduritasuna usatzen laguntzen du". Besteak beste, EGA edo lehenengo, bigarren eta hirugarren hizkuntz eskakizunak betetzeko ikastaroak eskaintzen dituzte. Ikastaro guztiak aste honetan hasi dira martxan.

Hiztegia: haize ufada⁽¹⁾/haize bolada. Azalera (2) / espazioa. Askok jota⁽³⁾/ gehienez.

+info: BIDEOA: Haizeak Amurrioko euskaltegiaren estalkida bota zueneko bideoa



BIDEOA: "Laudion 1983, ur eta elkartasun oldea" dokumentala. 30 urte bete dira uholdeak izan zirenetik, lan honetan tragedia hark Laudion utzi zituen ondorioak jasotzen dira. IRAUPENA: 50 min.

Arakaldoko udaletxean Espainiako bandera ipintzeko eskatu dute

Arakaldoko udalari "Bandaren legea" errespetatzeko agindua heldu zaio. Uztailean jaso zuten epaitegiaren eskaera.

Udako oporrak tartean egonagatik, ordea, erabakia hartzeko ikasturte berriari itxarotea erabaki zuten. Udaletik adierazi duteenez, urrian aztertuko dute zer eta nola egin.

Euskal Jaia ospatuko du Belaiki euskara taldeak larunbatean Baranbion

Urtero bezala, Baranbioko Belaiki elkarteak Euskal Jaia prestatu du urriaren 5erako.

12:30ean topaketa egingo dute Hor Dago jatetxean elkarrekin Garrastatxura igotzeko. Bertan, Andoni Egaña eta Sustrai Colina bertsolariekin bazkaria egingo dute. Arratsaldean, aldiz, erromeria egingo da.

Aiara

Neguan errepideak garbitzeko lan poltsa zabaldu du Aiarako Kuadrillak

ERREDAKZIOA |

Txabi Alvarado Bañares

Lan deialdia zabaldu berri du Aiarako Kuadrillak, neguko bideragarritasun planari begira.

Errepideetatik elurra kentzen arituko den talde berri bat osatzea da asmoa. Zehazki, bost dira talde horrek garbimantendu beharko dituen errepideak.

Batetik, Lantenotik Añesera doan A-3630 bidea. Bestetik, Arespalditza eta Kexaa lotzen dituen A-3626 errepidea.

Menoiorako sarbidearen garbiketa ere zereginen artean aurreikusitako dute; A-4818 sarbidea hain zuzen ere.

Bestalde, Luxoko eta Beotegiko sarbideak ere atondu beharko dituzte langile horiek. Hau da, A-4619 eta A-4640 errepideak.

Lan-baldintzak

Hainbat baldintza bete beharko dira lan deialdian parte hartzeko, traktore bat izatea lehena. Ibilgailuak teknikari batzuen berrikusketatik pasatu beharko du, elurra kentzeko egokia dela ziurtatzeko.

Taldeak bere gain hartu beharko du elurra kentzeko ematen zaion materialaren zainketa, eta prest egon beharko du larrialdi egoeratan aritzeko.

Lan-alorreko, Giza Segurantzako eta Lan Seguratasun eta Garbitasuneko araudiak bete eta dagozkien zergak eguneratuak izan beharko ditu baita taldeak.

Deialdian izena emateko Aiarako udalera jotzeko eskatu dute.

Informazio gehiago nahi duenak 945 399 013 telefonora deitu eta informazio gehiago eskuratzeko aukera izango du.



GUZURTEGI
JATETXEA · LOGELAK

LA PLAZUELA 6, MAROÑO (ARABA)
TLFNOA: 945 39 94 38
GUZURTEGI@EUSKALTEL.NET
WWW.GUZURTEGI.COM



Patxikoren etxea



Miren Goti Aramendi, Urigoiti 1 Orozko (Bizkaia) Tel: 679882686
www.patxikorenetxea.es · patxikorenetxea@euskalnet.net



_herriz herri

Orozko



Untzuetako Gazteluaren hondarrak Argazkia: Felix Mugurutza

Herriko ondarea ikusi eta ikasteko irteerak egingo dituzte

ERREDAKZIOA | Andoni Larrea Uribarri

Gure ondarea hobeto ezagutze-ko hainbat jardunaldi antolatu dira Europar Jardunaldien testuingu-ruan.

Egitasmoa ⁽¹⁾ Bizkaiko Europar Jardunaldien baitan kokatzen da. Aiaraldean Orozkon eta Urduñan egingo dira jarduerak.

Untzuetako gazteluaz gain, Kurtzegango menhirra eta Goikiriako

gangak ezagutzeko aukera egongo da, Orozkon, datozen asteburuetan. Alde batetik, hilaren 12an, Kurtzegan-eko menhirra mintzagai izango duen mendi-ibilaldia eta hitzaldia antolatu dituzte.

Ibilaldi hori Orozkoko Museotik abiatuko da 9:30ean, Zubiaurretik Beraza auzoraino autoz igoz. Auzo horretatik oinez egingo da bidea.

Izena emateko Orozkoko Museoan, zein 946339823 telefonon egin daiteke erreserba. Orozkoko udalak eta Auniak elkarlanean antolatu dute txangoa ⁽²⁾. Hizlaria, Carlos Lopez Quintana izango da.

Bestetik, hurrengoko ostiralean, urriaren 19an, Goikiriako gangak ezagutzeko bisita gidatua egingo da. 1770ean, Goikiria auzoko biztanle batek Mexikotik bidalitako 2000 pesotako dirutza jaso zuen. Diru horrekin, auzoan zegoen baseliza zaharrabota, eta berri bat eraikitzea erabaki zuten. Baseliza berria loreontziz, piramidez, arranoz... apaindu zuten. Eta, egurrezko ganga baten bitartez estali.

Gaur egun, baseliza berritzen ari dira. Horren harira, bisita honetan, Javier de Miguelek kontserbazio lanen nondik norakoak azalduko ditu. Horrez gain, Juanjo Hidakok tenplua eraikia izan zeneko kontaketa historikoa egingo du. Goikiriako gangak ezagutzeko irteera Orozkoko Museotik abiatuko da, goizeko 10:00etan.

Urduñan, arkupeen bisitaldia

Urduñan, hiriko arkupeetako muralak ezagutzeko bisitak egingo dira urriaren 12an, 19an eta 26an.

Arkupe horiek plazan kokatuta daude eta XV. mendearen bukaran hasi ziren eraikitzen.

Gaur arte erreforma ugari izan dituzte. Azkenekoan, artista garai-kideen 14 mural ipini zituzten.

Hiztegia: Egitasmoa ⁽¹⁾, proiektua. Txangoa ⁽²⁾/ ibilaldia.

Santa Marinako aterpetxea eta baseliza atontzeko auzolana, bidean

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren

Orozko Santa Marinako aterpetxea eta baseliza konpontzeko auzolanean dabilta makina bat herritar. Apirilaren hasieran heldu zioten asmoari. Josu San Pedro alkatearen esanetan, proiektua nahiko aurreratuta doa. Eguraldi ona badago larunbatero goizetan ari dira elkartzen auzolana egiteko.

Prestaketa bilerak apirilean hasi bazituzten ere, abuztuan egin zen lehen auzolan asteburua. Alkatuek azaldu duenez batz bestea 15-20 lagun ari dira elkartzen.

Orain arte egindako lanen artean aterpearen teilatua kentzea eta barruko karea kentzea daude, besteak beste. "Teila guztiak oso apurtuta zeuden. Azken momentuan metalezko txapajarriko dugu teilaren ordez". Alabaina, teilatuaren konponketa amaitzeko beste bi edo hiru aste beharko dituzte.

Eraikuntza zaharrek kare asko sortzen dutela eta, nola aterpetxeko hala baselizako hautsa ateratzen ibili dira. "Barrukoa luzeagoa izango da".

Santa Marinako ermita eta atsedenen lekua lehen apaizaren etxea zen. Azkeneko berriztaketa duela 30 urte egin zuten.

Presatxun flora inbaditzailea kendu dute errekatik

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

Flora exotiko inbaditzailea kentzeko auzolana egin zuten larunbatean Orozkon. Nerbio-lbaizabal eskualdetako ibaietako ertzak hobetzeko proiektuaren barruan antolatu du Udaltalde 21 Nerbioi-lbaizabalek jardura.

Egitasmoaren asmo nagusia, inguru honetatik igarotzen den erreka-ninguruko landare inbaditzaileak kentzea da. Horien artean daude *Cortaderia selloana*, *Arun-do donax*, *Buddleja davidii*, besteak beste. Era honetan, paisaia naturalago bat sortzea nahi dute, faunarentzako babeslekuak ugaritzea, bertako beste espezie batzuk hazten laguntzea eta ibaiertzak babes-tu eta egonkortzea.

Flora exotiko inbaditzailea kentzeaz gain, inguruaren zaugarriak eta balio naturalak ezagutu dituzte. Baita espezie inbaditzaileek sortzen dituzten arriskuak ere.

Nerbioi Udaltalde 21 proiektuaren barruan Bizkaiko hamar udalerritan egin dute ekimen bera. Horietatik lau Aiaraldean daude. Zehazki, Arakaldon, Arrankudiagan, Orozkon eta Urduñan egingo dute ibaiertzetako landare diaren garbiketara. Dagoeneko, ekimena herri batzuetan burutu da.

Zollo

Zolloko taberna lehiaketara aterako du Arrankudiaga-Zolloko udalak

ERREDAKZIOA | Ixone Mendibil

Zolloko tabernaren kontratua Urrian amaitzen da eta berriz aterako da lehiaketara, udalak jakinarazi duenez.

Izan ere, Arrankudiaga-Zolloko udalak taberna desberdinak ditu. Esate baterako, Xarmanta Zuluaga auzoan eta Zolloko taberna. Taberna biek kokapen ona dute. Zolloko taberna frontoiaren ondoko plazan dago.

Itziar Duoandikoetxeak esan duenaren arabera, kontratua lau urtekoa izaten da eta epe bete de-


nez, berriz izango dute aukera interesaturik daudenek taberna eskuratzeko.

Lehiaketara aurkezteko baldintzabatzuk bete beharko dira. Adibidez, Arrankudiaga-Zollon erroldatuta egotea: "Normalean bertako edo inguruko jendea apuntatzen da".

Dena den, lehiaketara aurkezteko irizpideak udalbatzara eramango dituzte lehenbizi. Onartzen badira, ohiko bideak erabiliz ondoren egingo dira publiko, interesaturik dauden herritarrek apuntatzeko aukera izan dezaten.

Urduña

_Iruditan



Irailaren 28an izan zen Urduñako herri krossa. Emakumezkoetan Laura Garcia, Ibone Sanchez eta Mari Carmen Garcia sailkatu ziren lehenbiziko postuetan, hurrenez hurren. Gizonezkoen kategorian, aldiz, Youssef Denni izan zen helmuga lehenbizikoz zeharkatu zuena. Lasterkariak 10 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Argazkia: Josu Garaio

_sozioekonomia



Mikel
Kormenzana
EHNE sindikatua

_Argia

Nolako ekonomia eredu bultzatzen ari gara?

Azken aldi honetan gero eta erakunde, gizarte mugimendu eta alderdi politiko gehiago ari dira elikadura burujabetzaren kontzeptu globala aintzakotzat hartzen. Horrek ez du esan nahi kontzeptua barnerratu dugunik.


Instituzio publikoek askotan gizarte sentsibilizatzeko kanpainak egiten dituzte, kontsumo pribatua aldatzea bultzatzeko. Baina, kontsumo publikoa non gelditzen da? Kontsumo publikoa toki askotan egiten da, herri bazkarietan, jaietan, jantoki kolektiboetan, (eskolak, nagusien egoitzak), gizarte zerbitzuen bitartez ematen diren baliabideetan...

Nolako kontsumo ereduak bultzatu ditugu toki eta ekitaldi guzti hauetan? Kontzientea gara nondik, nork eta zelan ekoiztuak diren toki guzti hauen bitartez etortzen diren elikagaiak? Nolako ekonomia eredu bultzatzen ari gara? Bertoko produktuak eta zerbitzuak jadanik ez dira hartzen, bertoko baserriarrak eta denda txikiak zirkuitu ekonomiko guzti hauetatik at gelditzen baitira.

Tokiko ekonomia deslokalizatu egiten da, katerinak eta zerbitzu enpresa handi edo multinazionalen eskuetan aurkitzen gara.

Elikagaien ekoizpenetik zerbitzua eman arte, zein nolako lan baldintzak eta ze nolako eraginak ingurugiroan ari gara bultzatzen? Tokiko ekonomia indartzeko, enplegua sortzeko, burujabeagoak izateko, gizarte beharrei erantzuteko momentua heldu da. Politika publikoak aldatu egin behar dira.

Guardian enpresak industriaguneko lur zati bat jarri du salgai Laudion



Laudioko Guardian enpresa Argazkia: Iban Pagalday

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Guardian enpresak 5,5 hektarea inguru jarri ditu salgai: 3,5 hektareakopartzelabat eta 1,8 hektareako beste bat.

Erabaki historikoa izan da zuzendaritza berriak hartutakoa, Villosa sortu zenetik bere izaerari loturik baitzegoen lurzoru horien jabetzera.

Norabidealdaketak interpretazio ezberdinak sortu ditu. Enpresak ez du momentuz azalpenik eman eta adituen arabera, Guardianek azken bi urteetan egingako apustu estra-

tegikoarekin harremana izan deza- ke neurriak.

Enpresak inbertsio garrantzitsuak egin ditu Laudio lantegian. 2011n, 40 milioi euro bideratu zituen arkitektura eta automobilgintzaren merkatuei begira. Hori baino apur bat lehenago, 2010. urtearen erdialdean, 30 milioi euro erabili zituen Laudion eta "Float" labea erosi zuen kristalen tratamendua luzatu, hedatu eta beiraren kalitatea hobetzeko. Inbertsio horren helbu-

rua eguzki-energiaren merkatura- ko produktuak ekoiztea izan da.

Langile Batzordearen iritzia

Egun, Laudio Guardian enpresa 580 langile inguruk osatzen dute. Langileen ordezkariak, aldiz, ez dute iritzi zehatza Guardian enpresaren zuzendaritzak erabakitakoari buruz. Andoni Bikandik ELAko ordezkariak nabarmendu du batzordeak soilik lan harremanak jorratzen dituela. Zentzu horretan, Bikandik salatu du zuzendaritzak beharginei %7,2ko soldata murrizketa proposatu diela. Finean, horrek soldata bati uko egitea suposatuko luke, ELAko kidearen aburuz. Printzipioz, batzordeak ez du sakrifizio gehiago egiteko asmorik.

"Behin eta berriro esaten digute merkatu berriak bilatu behar direla eta krisian dagoela enpresa, baina gu jo eta su gaude lanean. Berrez enplegua erregulatzeke espediente batean gaude murgildurik eta oso egun gutxietan egon gara lan egin gabe. Eta behargin⁽¹⁾ gehiago kontratatu ordez, lan ugari dagoelako, zuzendaritzak beste espediente eskatu nahi du" adierazi du.

Hilargi Jaunarena LAB sindikatuko ekonomialariak gogoratu du 2011. urtean 67.890.000 euro banatu zituela enpresak akziodunen artean, eta bere aburuz ez da diru

faltarik egon behar. Andoni Bikandik uste du salmenta horien bitartez enpresa erakargarriagoa izatea nahi duela zuzendaritzak Koch Holding estatubatuarrentzat. Holding enpresaren akziodunada, eta %49 berea da. Gainontzeko akzioak saltzea izan daiteke gaurko zuzendarien helburua, langilearen iritziz.

Dena den, krisiak eta Gobernu Espainiarraren azkenengo neurriek kolokan jarri dituzte egindako inbertsioak. Alde batetik, krisiak merkatuaren gainean eragina izan du. Bestalde, Alderdi Popularrak sustatu duen erreforma energetikoak energia berriztagarrien garapena zailagoa egin du. Autokontsumoaren soberakinak sare elektriko arruntera bideratzea eta horrek norbanakoei sortuko dizkien etekinak⁽²⁾ ez baitu arautu.

Adituek, hala ere, azpimarratu dute lurzoru horren salmenta ez dela derrigorrez albiste txarra. "Laudi 2025" herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren jardunaldietan behin eta berriro aipatu baita herriak duen industria-lurzoruaren gabezia. 5,5 hektareahoriek salduko balira enpresa gehiagok aukera izango lukete Laudioaren aldeko apustua egiteko.

Hiztegia: Behargin⁽¹⁾, langile / etenikak⁽²⁾, onurak.

Tubacex enpresa Kantabrian fabrika bat irekitzea aztertzen ari dela zabaldu dute hedabideek

Hainbat hedabidek adierazi dute Aiaraldean errotautako Tubacex enpresako zuzendaritza Kantabriako Gobernuarekin negoziatzen ari dela Solares herrian dagoen Sodepisa industriagunean lantegi berria irekitzeko asmoz.

Aintzat hartu behar da Tubacexek dituen gainontzeko lantegiak Aiaraldean kokatuta daudela. Artziniegan, Amurrian eta Laudion, hain zuzen ere.

Albiste zabaldu bezain laster, enpresako zuzendaritzak bilera egin zuen langile ordezkariekin.

Carlos Laiseka, CCOO sindikatu-ko kideak jakinarazi du zuzendaritzak ez ziela plazaratutako informazioak egiaztatu.

Tubacex enpresako arduradunek ordea, euren kezka azaldu zuten hedabideek informazio hori zabaldu izanagatik, oraindik ez baitute erabakirik hartu.



10

ENPRESA HANDIENAK ESKUALDEAN

- 1 TUBACEX 1150
- 2 TUBOS REUNIDOS 734
- 3 GUARDIAN 580
- 4 AIALA VIDRIO 391
- 5 MEGATECH 288
- 6 LIDL 252
- 7 JEZ 200
- 8 INAUXA 151
- 9 ENVASES METALURGICOS 134
- 10 VIDRALA 129



Balintxarreketeta
Jatetxea

Tel.: 94 672 43 50
info@restaurantebalintxarreketeta.com
www.restaurantebalintxarreketeta.com

Malkuartu, 1
01400 LAUDIO

_jendarte

Hizkuntzaren ezagutza

Euskaradunak gora

Aiaraldeko biztanleriaren %58,85 da euskaraz komunikatzeko gai. Euskal Estatistikaren Institutuak argitaratu dituen azken datuen arabera, biztanle kopurua eta euskararen ezagutza maila konparatuta Orozko eta Arrankudiaga-Zollo dira eskualdeko herririk euskaldunenak.



Maider

Iglesias
ARANZADIko kidea

_Natur hotsa

Nork ikusi du igel txiki hau ugaltzeko putzuetara heltzeko ahalegina egiten?

Asko dira Euskal Herrian industrializazioa, abeltzaintza intentsiboa edota zura ustiatzeko zuhaitz landaketak direla eta haien ondare naturala galdu duten eskualdeak.

Aiarako bailarako zenbait lekuetan, aldiz, naturaren jatorrizko izana topa dezakegu oraindik ere.

Hala ere, gauza asko egin daitezke hobetzeko, edozein jarduerak gizakia eta naturaren arteko oreka fina alda dezakeelako.

Ezagutzen duguna da babes-ten dugun bakarra, beraz, ezagutu dezagun Aiara eta bere berezitasunak.

Asko dira gure eskualdean topa ditzakegun animalia espezieak, adibidez. Askotan, inork ohartu gabe gertatzen dira pizti hauek protagonista dituzten ikuskizunak.

Anfibioen artean, adibidez, baso-igel jauzkaria dugu Aiara-ko altxorra. Nork ikusi du igel txiki hau otsaileko gau euritsuetan ugalketa putzuetara heltzeko ahalegina egiten?

Zenbait lekuetan ehunka ale ikus daitezke errepide, harra-
pari eta gainerako arriskuei aurre egiten haien ondorengoek aukera eduki dezaten; gizakiak instant batean suntsi dezakeen aukera.

Zergatik? Ezagutzen ez duguna errespetatzen ez dugulako. Eta, Aiara, ezagutzeko aukera paregabeak eskaintzen dizkigula ohartu behar gara.



Gero eta gehiago dira euskara euskaltegietan ikasten duten herritarrik Argazkia: Aitor Aspuru

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Euskaldunen eta ia euskaldunen kopurua aintzat hartuta, Aiaraldean 24.415 pertsona dira euskara erabiltzeko gai. Guztira, biztanleriaren %58,85, 2006arekin alderatuta 5,68 puntu gehiago. Hala dio Euskal Estatistiken Institutuak (EUSTAT) argitaratutako euskararen erabileraren inguruko azken neurketak. 2006tik 2011ra euskarakizandako bilakaera aztertu dute bertan.

Eskualdeari dagokionez, Orozko eta Arrankudiaga-Zollo dira Aiaraldeko herririk euskaldunenak. Oroz-

ko %82,97 dira ia euskaradunak; 2046 pertsona. Arrankudiaga-Zollo dauden 737 euskaldunek, aldiz, populazioaren %78,49 osatzen dute. Gainontzeko udalerri euskaradunenak Arakaldo, Okondo, Aiara, Amurrio, Audio, Artziniega eta Urduña dira, hurrenez hurren.

Euskaltegiak, abian

Pasa den astean bukatu zen euskara ikasteko matrikulazio epea. Euskara irakasteko helburuz, Aiaraldean hiru euskaltegi daude. Horietatik bi, Laudion: AEK-ko Berbots

eta udal euskaltegia. Amurrión, aldiz, AEK-koa da ikastegi bakarra. Alabaina, Urduña, Aiara eta Artziniegako ikasleak ere biltzen ditu. Audiokoak, berriz, arakaldokoarrak, orozkoarrak eta okondoarrak.

Martin Garcia Aiaraldeko AEK-ko kidearen esanetan ikasle kopuruan ez da gora-behera⁽¹⁾ askorik egon: "Aurreko ikasturtearen hasierako datuekin alderatuta antzerako kopuruak ditugu".

Patxi Iturregik, Audioko udal euskaltegiako langileak, izen ematea %6 igo dela dio: "Iaz ez bezala, aurten igoera txikia izan dugu. 270 lagunek eman dute izena. Gure balorazioa oso baikorra da. Joan zen urteko jaitziera, oro har, nabarmena izan zen eta zaila ikusten genuen egoerari buelta ematea".

Iturregiren ustez, hainbat faktore negatibo pilatu ziren: krisialdi ekonomikoa, ikasteko diru-laguntza falta, tituluetatik salbuesteko dekretua... Martin Garciaarentzat, jendartearen egoera ekonomikoak ere badu zerikusia⁽²⁾: "Jende askorentzat zama itzela da matrikula ordaintzea".

Egun euskara ikasteak ez dirudi lehentasuna duenik. Izan ere, euskarak lanpostua lortzen lagun dezake, administrazioan bereziki. Baina une honetan ez dago lanik eta



Patxi Iturregi

Laudioko Udal euskaltegiako zuzendaria

"Euskarak gero eta prestigio gehiago du gure inguruan; etorri berriek ere ez dute atzean geratu nahi"

24.415
EUSKALDUN ETA IA EUSKALDUN DAUDE AIARALDEAN (EUSTAT 2011)

- ¹ OROZKO %58,88 (1.452)
- ² ARRANKUDIAGA %54,74 (514)
- ³ ARAKALDO %47,01 (55)
- ⁴ OKONDO %30,92 (346)
- ⁵ AIARA % 29,99 (822)
- ⁶ AMURRIO % 28,8 (2.849)
- ⁷ AUDIO % 28,13 (5.167)
- ⁸ ARTZINIEGA % 27,5(443)
- ⁹ URDUÑA %24,41 (995)

are gutxiago administrazioan. Beraz, jendeak beste lehentasun batzuk ditu".

Ikasle gehienak EGA tituluaren bila doaz euskaltegietara. "Gero eta jende gehiagok du agiriren bat lortzeko helburua. Bada, hala ere, euskara bestelako arrazoiengatik ikasi nahi duen jendea, gure hizkuntza delako, seme-alabei eskolan laguntzeko...", dio Garciak. Euskara maitate delako eta lagunekin euskaraz mintzatu nahi delako hurbildu direnak ere ezagutzen ditu Iturregik.

Biak bat datoz hizkuntz gaitasun agiriak ez dutela herria euskalduntzen pentsatzean. "Egia da ikastera bultzatzeko laguntzen duela kasu askotan, baina lortzen den gaitasun horrek bizitza euskaraz egiteko balio behar du", dio Garciak.

Etorriberriak ikasle

Azaldu dutenez, kultura ezberdinetara ere hedatzen⁽³⁾ ari da euskara. "Gero eta etorriberri gehiagoko dugu gure geletan. Haiek ere argi ikusten dute euskarak gero eta prestigio gehiago duela gizarte mailan, eta ez dute atzean geratu nahi", adierazi du Iturregik.

Iaz, Urduñan Aisa programa egin zuen AEK-k. Aurreko urteetan Laudion eta Amurrión ere burutu zen. "Etorkinei begirako klaseak dira, euskararekin eta euskal kulturarekin aurreneko kontaktua izateko 60 orduko moduluak", azaldu du Garciak. Irakaslearen hitzetan, oso aberasgarria da talde berean zortzi edo hamar herrialdeetatik etorritako jendea egotea. Amurrioko talde batean Brasil, Argentina, Sahara, Dominikar Errepublika, Peru, Suitza, Maroko eta Kolonbiako jendearekin bizitako esperientzia du gogoan.

Euskara praktikatzeko proiektuak ugari dira. Eskualdean, *Berbalagun* eta *Gurasolagun* dinamika dira horietako batzuk. Edo, komertzioetan euskararen erabilera bultzatzeko Laudion martxan jarri duten *Dendaketa* programa.

Euskara, toki, kultura eta herritar ezberdinetara hedatzen ari denaren seinale.

Hiztegia: Gora behera⁽¹⁾, aldaketa / Zerikusia⁽²⁾, garrantzia / Hedatzen⁽³⁾, zabaltzen.

Info +: Euskaradunen bilakaera Aiaraldean. 2006 eta 2007ko datuen alderaketa.



Agroekologia, lurra eta jendarte elikatzeko modua

Aiaraldean geroz eta ekoizle ekologiko gehiago daude. Batez ere, bertako eta garaiko produktuak eskaintzen dituzte; zuzeneko salmenta bidez herritarrei elikagaien ekoizpenean zein produktuetan kalitatea bermatuz.

ERREDAKZIOA |  Iizar Mendiguren Cosgaya

“Jaten duguna gara”, dio herri esaerak. Nola elikagai hala pertsonak ahalik eta naturalenak izateko hamaika bide daude. Horietako bat da ekoizpen ekologikoa; esaera zaharra izaera berri bilakatzen ari den produkzio sistema. Aiaraldean, geroz eta jende gehiago ari da tokiko eta garaiko ekoizpen kateetara lotzen. Ekoizteko eta kontsumitzeko nekazaritza eta abeltzaintza industrialetik askatzen.

Zehatz-mehatz hamalau ekoizle ekologiko daude. Horietatik zortzi Urduñan kokatzen dira, %50 baino gehiago.

Ekologikoki produktu asko ekoizten dira. Horien artean daude haragia, ardigazta, arrautzak, fruta, txakolina, barazkiak, karandulak, barraskiloak, eztia edo marmeladak. Baita ogia eta gozogintza ere. Hala ere, tokian toki sortutako produktuen zerrenda luzeagoa da.

Urratsa ⁽¹⁾, ordea, lurretatik denetara ere igaro da. Rakel Salgado produktu ekologikoekin Mari-
tierra denda zabaldu zuen udabe-

rrian Amurrion. Tokiko ekoizpena eta agroekologia ditu ardatz. Zergatiak garbi ditu: “Osasun aldetik jaki ekologikoak ezin hobeak dira”.

Izan ere, elikagai ekologikoak manipulazio genetikotik libre daude. Animalien bizi kalitatea ere hobea dela uste du Salgado. Eta, nekazari-
ek autonomia eta landa eremuko garapen egonkorra bultzatzen duten heinean, lanpostu gehiago sortzen direla; “pestizida eta makinen ordez eskulanabaliatzen baita”. Momentuz, tokiko dozena bat ekoizle-
rekin lanean hasi da. Besteak beste, herritarreibertako barazkiak, fruta, ogia, marmelada... eskaintzen dizkie dendaren bitartez.

Zigor Gorostiaga, Orozkoko Itxina Abeltzainen Elkarteko kidea da. “Itxinapeko Okela” ekoizten du, piri-
nio eta terrenu arrazetako behien haragi abelgorria.

Abeltzaintzaren erronkak

Orozkoko abeltzaintzaren erronkak asko dira, haren iritziz. Batetik, lehenengo sektorearen etorkizuna bermatzeko abeltzaintzari ga-

Tokiko eta garaiko produktuak ekoiztuz makina bat elikagai ekologiko lantzen dira eskualdean: haragia, ogia, arrautzak, barazkiak, fruta, marmelada, txakolina, barraskiloak...

rrantzia eman behar zaiola uste du, “gero eta txarrago baitoa”. Bestetik, formazioa sustatzeari ezinbestekoa deritzo. “Ingurumen eta gizarte-
ari begira oreka bat behar da. Orainarteko arbasoak ⁽²⁾ inguruarekin oreka batean bizi izan dira”.

Tokikotasuna ardatz

Bertakotasunagatik, elikagaiak hemen ekoizti behar direla garbi du. Lur kopurua, du, ordea, arazo: “Ekologikora pasatzeko lur sail ⁽³⁾ gutxi dago. Eredu iraunkor eta jasagarriago bati lotu nahi badugu ezin dira 300 behi bildu hektare-
a batean”. Animaliak hazteko orduan, kanpoko merkatuaren menpekotasuna dagoela oraindik dio; pentsuan kasu ⁽⁴⁾.

Azken hamarkadetan abeltzaintzak bolada txarra bizi izan duela nabarmendu du orozkoarrak: “Kon-
tsumo taldeek horretan laguntzen dute, baina menpekotasunarekin apurtu behar da. Horretarako lur-
ra izatea da atal garrantzitsuena”.

Hala ere, baikor dago: “Ekoizpenean ere burujabeak izatea lortzen badugu etorkizun hobeabermatzea lortuko dugu”.

Beste hainbat ekoizleren antzera, zuzeneko salmenta gauzatzen du Gorostiagak. Hala, merkatuarekiko menpekotasuna hausten du, ekoizleak ipintzen baitu elikagaiaren prezioa. “Bitartekarien gastuak kentzen dira. Sozialki kontsumitzaileekiko zuzeneko harremana lantzen da. Hori ona da biontzat, okela nondik datorren badakitelako eta guk bezeroen beharrak edo gustuak ezagutzen ditugulako”.

Urduñan ere, Bedarbide elkartea haragi ekologikoa ekoizti eta zuzeneko salmenta egiten hasi da, ber-

tako larretan ⁽⁵⁾ gizendutako behiekin.

Esnetik kooperatibak esnekien osatutako produktuak saltzen ditu. Orozkon dute egoitza, eta eskualdean zehar ardi gazta, jogurta, es-
nea... eskaintzen dute.

Laudion, Baratza elkar-
teak barazkiak, okela, olio-
a, beste enpresa batzuetatik hartutako produktu ekologikoak ... banatzen ditu.

Eskualde osoan, tokiko produktu ekologikoak banatzen dituen Kontsumo Talde bat ere badago abian. Baita Nekasarea izeneko proiektua ere.

Herritarrek ortu ekologikoak izateko aukerak ere areagotu dira. Besteak beste, Urduñan, Laudion eta Amurrion udal baratzak jarri baitituzte biztanleen eskura.

Gazteak, ekoizle

Marijo Gurutzaga Urduñako Ekoizpen-eko teknikariaren aburuz ⁽⁶⁾, geroz eta gazte gehiagok aukeratzen dute lehen sektorea ogibide gisa: “Gorantz doan joera da. Aurten eskualdean beste bi ekoizle gehiago hasiko dira lanean. Jende askok du hori buruan”.

Formazioa emateko hastear dudenekin Baratza taldea sortu dute. “Batzuk lurra dute, besteak lur bila dabilta... baina denek dute buruan bakoitzak bere proiektu ekologikoa martxan ipintzea”, dio.

2007an eskualdean ez zegoen ekoizle ekologikorik. Egun, ordea, hamalau daude. Batzuk kolektiboetan antolatzen dira. Beste batzuk, aldiz, indibidualki.

Baserritar txikiei mesede egiten dio ereduak, Gorostiagaren hitzetan. “Geroz eta baserritar txiki gehiago egon, baserri handi baten ekoizpena baino hobea izango da.



Barazkiak, marmeladak, txakolina, haragia... ekoizte



Rakel Salgado

Maritierra denda ekologikoa

“Osasun aldetik jaki ekologikoak ezin hobeak dira. Animalien bizi kalitatea ere hobea da”



Marijo Gurutzaga

Ekoizpen

“Goruntz doan joera da. Aurten eskualdean beste bi ekoizle gehiago hasiko dira lanean”.



Zigor Gorostiaga

Itxina Abeltzain elkartea

**“Ekoizpenean ere burujabeak izatea lortzen badugu etorkizun hobe-
a lortuko dugu”**



en dira besteak beste Aiaraldean Argazkia: Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Zenbat eta lanbide gehiago sortu, hobe". Bidea egiteko, ordea, aukera asko daude. Taldean aritzeari alde onak ikusten dizkio Gurutxagak: "Urduñako esperientziarekin hori ikusi da. Zaila da ekoizleen artean abiadura ezberdina dagoelako. Asmo batzuk bideratuago daude. Esfortzuak konpartituta duten inpaktua diferentea da".

Proiektukolektiboeierreparatuz, eskualdeangeroz etasare gehiago sortzen ari dira. Besteak beste, Urduñako Zaporeak proiektua, Bedarbide Urduñako abeltzainen elkarte, Orozkoko Itxina abeltzainen elkarte, Zazpiak bat harreman sarea...

Elikadura burujabetzaren inguruan hausnartu eta ikasteko hilerio antolatzen dute Urduñan Agroekologia Foroa. Asteburu honetan emango diote amaiera Agroekologia Asteari. Ez edonola, gainera. Izan ere, goizean zehar bertako baserritarrenazoka egingo dute Foru Plazan. Eguerdian, aldiz, bertso bazkari agroekologikoa antolatu dute Eskola Publikoan.

Aurrera begira ere, nork bere bideetik elikadura eta produkzio eredu hobetzen jarraitzeko asmoa dute. Produktu eta heziketa bidez, Aiaraldea elikatzen.

Hiztegia: Urratsa⁽¹⁾, pausoa/Arbasoak⁽²⁾, Aurretiko belaunaldiak / Lur sail⁽³⁾, eremua/Kasu⁽⁴⁾-adibidez / Larrara⁽⁵⁾, zelaia / Aburuz⁽⁵⁾/ustez

• **info: web:** -<http://www.aiaraldea.com/bideoak/beste-elikadura-bat-posible-da-esnetik-eta-nekasarea>

2007an ez zegoen Aiaraldean ekoizle ekologikorik. Egun, hamalau daude. Gazteen artean ugaritzen ari den joera da, produktuen kalitateaz gain, lanpostuak sortu eta bizi kalitatea hobetzen baitu.

“Agroekologia baserri eredura itzultzea da, ez 50 urte atzera egitea”

MARIJO IMAZ GURUTXAGA (Urduña, 1973) Urduñako Ekoizpen erakundeko teknikaria da. Produkzio ekologikoa sustatzea du ogibide. Aiaraldeko lehen sektorearen egoera ondo ezagutzen du.

Agroekologia Astea antolatu duzue. Zein helbururekin?

Urtean zehar egiten diren lan guztiak ezagutzera emateko. Eta, sentsibilizazio lanarekin jarraitzeko. Elikadura, nekazaritza iraunkorra... bezalako gaiak herrian zabaltzeko. Agroekologia ez da lehen sektoreko gauza bat, gartzeko behar diren tresnak eskualde mailan aurkitzen ditugu: langileak, kontsumitzaileak....

Zer da, baina, agroekologia?

Nekazaritza ekologikoa europar mailako araudi batek deskribatzen duen ekoizpen modua da. Agroekologia askoz kontzeptu zabalagoa da, pixka bat denetik sartzen da: lehen sektoreko lan baldintzak, proiektuen bideragarritasuna, ingurumena eta kultura...

Zelako ekoizpen ekologikoa du Aiaraldeak?

Azken urteetan gauzak asko aldatu dira ekoizleen eta kontsumitzaileen aldetik. Ekoizti eta kontsumitzeko moduaren inguruan ardura bat dago. Mugimendu bat sortzen ari da, kontsumo taldeak jaio dira, produktu ekologikoak saltzen dituzten dendak, proiektu kolektiboak... Orain dela 7-8 urte denontzat arrotza edo ezezaguna zen nekazaritza ekologikoa.

Bertako produktuak jatea jendeari arrotza al zaio?

Lehen ideia okerra zegoen. Kontsumitzaileek ekoizleen produktuak elitistak eta garestiagoak zirela uste zuten; ez zeudela guztien esku ezta egunerokoan eskura. Horrekin hautsi dugu pixkanaka. Gaur egun bertako nekazarietako aukera bat da. Nekazaritza industrialak inguruko nekazaritza desagertaraztea eragin du, ekoizle txikiak kanporatu egiten dituelako. Beti egongo da norbait gehiago eta merkago ekoiztuiko duena, hori da nekazaritza industrialaren eredua.

Zertan ezberdintzen dira ba baserritarren eredu eta industria?

Agroekologiaren ereduaren oinarria baserritarra da. Jende gaztearentzat enplegu aukerak sortzen ditu, eredu industrialak ez ditu ez nekazari ez kontsumitzaileen beharrak asetzen. Orain dela 7 urte dinamika hauekin hasi ginen kontsumitzaileei iristeko oso produktu gutxi genituen. Gaur

“Duela 7 edo 8 urte denentzat arrotza zen nekazaritza ekologikoa”

“Telebista, pelikulak... Industriak markatutako kontzeptuak oso barneratuta ditugu”

“Agroekologiak ez du derrigorrez aurrerapen teknologikoei uko egitea esan nahi”

egun, asko ditugu. Abeltzainak duela 7 urte ere bazeuden, baina ez zuten zuzeneko haragi salmentarik egiten; orain bai. Lehen taldeetako produktuak kanpotik zetozen, gaur egun elikagai gehienak eskualdetik datoz; inguruagatik jorratzea ezinezko direnak kenduta: laranja, dilistak...

Zein abantaila ditu nekazaritza ekologikoak?

Baserritar txikientzako aukera bat da. Gizarte mailan sareak lantzen ditu. Maila kolektiboan gauzak lantzen direnez harremanak sortzen dira. Eredu industrialak harremanak hautsi eta indibidualizazioa bultzatu du; isolamendua. Agroekologiak, aldiz, baserritarren harremanak berreskuratzen ditu. Lehen sektorean; tokiko ekonomia lantzen du eskualde eta herri mailan. Industriak hori dena kanpora ateratzen du.

Beraz, agroekologiak eskualdeko bizi baldintzak hobetzea dakar. Urduña bezalako herrietan hori ere behar da. Kalitate aldetik ere ez dago konparatzerik. Dena bertan ekoizten da eta garaiko produktuak dira. Askorentzat oroi-menean dauden zapore, usain eta sentsazioak berreskuratzea dakar. Nekazaritza industrialarekin edozer gauza kontsumitu daiteke urteko edozein momentutan. Orduan, honek, naturarekiko harremanak berreskuratzea ahalbidetzen du; zikloak...

Eta oztupoak?

Eredu industrialak finkatu dituen oinarriak. Batzuk uste dute produktu ekologikoak garestiagoak direla. Eredu industrialak markatutako kontzeptuak oso barneratuta ditugu. Telebista, pelikulak... ditugun influentzia guztiak eragina dute gudan. Agroekologia baserri eredu batera itzultzea da, ez 50 urte atzera egitea. Askorentzat hori antzinako bizi-tzara bueltatzea da, baina ez da hala. Denok argi dugu landa eremuetan bizi baldintza minimoak izan behar direla. Agroekologiak ez du derrigorrez aurrerapen teknologikoei uko egitea esan nahi, baizik eta modu iraunkor batean erabiltzea.



Marijo Gurutxaga, Urduñako Ekoizpen-en bulegoan Argazkia: Aiaraldea.com

_kultura

Mikel Ayllon

“Denbora bera ere zalantzan jartzea ariketa interesgarri iruditzen zait eta atzekoz aurrera kontatuko dut istorioa”

MIKEL AYLLONEK Igartza Saria irabazi du. “Ez tiro egin anbulantziei” eleberria argitaratzeko aukera eta laguntza.



Mikel Ayllon idazlea, Igartza saria irabazi berritan Argazkia: Gartzten Garaio

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

MIKEL AYLLON audioarra aurtengo Igartza Sariaren irabazlea da. Horri esker *Ez tiro egin anbulantziei* bere lehen eleberria argitaratuko du. Urtebetea idatzi dezan, 6000 euroko laguntza eman diote.

Nola sentitzen zara saria jaso ostean?

Poz handia hartu nuen saria irabazi nuela esan zidatenean. Gero, bertigo. Eta orain, ardura horri egin behar diot aurre.

Ematen du urtebete nobela bat idazteko denbora asko dela, baina nik buruan daukadan istorioak garapen luzea izango du. Gainera, asko kostatzen zait idaztea, denbora asko behar izaten dut dena bere lekuan dagoela erabakitzen dudana arte. Hala ere, ona da muga bat izatea, neure burua idaztera behartzeko. Eleberri bat idazteko, garrantzitsua da egunero aritzea, tonua ondo hartzeko eta burua beti istorioaren barruan izateko.

Orokorrean 10-12 proiektu aurkezten dira Igartza sarira. Aurten 25 izan dira. Zer eskaini diozu epaimahaiari irabazle izateko?

Ni nik ez ditut ezagutzen aurkeztu diren gainontzeko proiektuak, baina nire proiektua nahiko itxia izan da. Oso argi daukat zer den

idatzi nahi dudana eta nago hori dela epaimahaiak baloratu duena. Sari hau oso berezia da: 20 orrialdeko lagina aurkeztu behar duzu, eta beste bi edo hiru orrialdetan eleberria nolakoa izango den azaldu behar duzu. Bestalde, haiek esanda, anbizio handiko proiektua da. Eta hala da, bai: proiektu konplexua da teknika narratiboaren aldetik, baita jorratu nahi ditudan gaien aldetik ere.

Zeintzuk dira konplexutasun horiek?

Prinzipioz, gaiei begiratuta, istorio garaikidea izango da. Geroz eta gehiago urratzen ari zaigun gaur egungo garaia buruz idatziko dut. Denok ikusten dugu sistema honek ez duela gehiago funtzionatzen eta hondamendira garamatzala esparru guztietan. Maila guztiak daude krisian: ekonomikoa, politikoa, kulturala, soziala... Horren gaineko hausnarketa da liburua.

Horretarako hiru atal nagusi izango ditu, eta bakoitzean gai bat jorratuko da. Hiru gai horiek unibertsalak dira, beti presente egon direnak eta egongo direnak: askatasuna, heriotza eta maitasuna. Erabilitako teknikak ere badi-tu berezitasun batzuk. Deigarriena zera da, atzekoz aurrera kontatutako istorioa dela. Denbora bera

“Sistemak ez du funtzionatzen. Maila guztiak daude krisian. Horren gaineko hausnarketa da”

“Oso argi daukat idatzi nahi dudana eta hori baloratu du epaimahaiak. Anbizio handiko proiektua da”

ere zalantzan jartzea ariketa interesgarria iruditzen zait.

Gauzak kontatzeko beste bide bat aukeratu dut eta horrek ere laguntzen dit pertsonaiei zama arintzen. Oso ohituta gaude, edozein pertsona ezagutzerakoan, hura epaitzera. Pertsona horrek hartu dituen erabakiengatik edo egin dituen gauzengatik epaitu egiten dugu. Horrela, pertsonak mugatzen ditugu. Nire pertsonaiei zama hori kendu nahi diet. Hasieratik ezagutuko ditugu pertsonaia, baina ez dugu jakingo zer egin duten, zer hautu hartu zizuten iraganean eta beraz, behintzat hasieratik, ezin izango ditugu epaituko.

Sylvie eta Gerard dira pertsonaia protagonistak. Ez da arraroa horrelako bi izen topatzea euskal eleberri batean?

Bai. Ez nuen hitz egin nahi soilik hemen gure herrian ematen ari diren, emango diren edo etortzeko diren aldaketek; gure zibilizazio honetan ematen ari diren aldaketek baizik. Horregatik distantzia hartu nahi nuen eta ez nuen irakurlea engainatu nahi. Hau ez da gure herriko, edo behintzat ez bakarrik Euskal Herriari buruzko nobela. Gauza zabalagoa da, orokorragoa da. Horregatik aukeratu ditut bi izen atzeritar. Printzipioz, badi-rudi frantsesak direla, baina edonongoak izan daitezke. Liburuan ez da leku ezagunik agertzen.

Bukatzeko, abiapuntura joko dugu. Nondik dator eleberriaren izenburua?

Ez tiro egin anbulantziei izenaren atzean frantsesak erabiltzen duten esamolde bat dago, eta uste dut azkar ulertzen den kontua dela. Nolabait, anbulantziak zerbait sakratua dira, beti errespetatu behar dena.

Eleberrian gauzak nahiko okertuko dira, egoera gogorak aurkituko ditugu eta horrek etsipenera eramango gaitu.

Liburuarekin ez dugula burua galdu behar aldarrikatu nahi dut. Egoera okerrenetan ere ez garela batera eta bestera tirokatzen hasi behar. Eta azkena dela anbulantziei tiro egiten hastea. Gauzak zail edo ilun jartzen badira, beti dago aukera zutitzeko, aurrera jarraitzeko eta bide berriak bilatzeko. Hori da izenburuarekin iradoki nahi nuen.



Kepa Sojo
ZINEMAGILEA

—Kamerinoa

Guztiz harrituta nago. Txinan, Errusian, Frantzian, Mexikon... jarri dute lana

Apirilean estreina-tu genuen nire azken film laburra, “Loco con ballesta”. Sei hilabete pasa dira Medina del Campoko jaialdian lehenengo emanaldia egin genuenetik eta filmaren bidea ikaragarria eta luzea izan da. Ia berrogei zine jaialditan egon da. Espainiar estatuan ez ezik kanpoan ere hartu digute filma. Guztiz harrituta nago ezen eta Txinan, Errusian, San Marinon, Frantzian, Mexikon, Iparramerikako Estatu Batuetan eta Belgikan jarri baitute nik burututako lana. Gidoia etxeko bakardadean idatzi ondoren, finantzazioa lortuz Banatu Filmak produktoreari esker 2012ko irailean filmatu genuen. Postproduziozko lanak jasan ondoren, apirilean gure estreinaldia heldu zitzaigun. Eta arrakastatsua gainera, sari bat eman ziguten eta. Hortik Aurrera ikaragarritzko ibilaldia bete dugu. Euskal Herritik, Kataluniara, hortik Gaztelara, gero Extremaduran ere egon gara, Andaluzia, Aragoi eta Valentzia ahaztu barik.

Estatuko eremu guztietara heldu da gure lana. Bidaia dibertigarriak izan dira. Sari batzuk lortu ditugu. Lleidak jaialdi batean bi urdaizpiko irabazi genituen. Badajozeko beste batean beste urdaizpiko iberiko bat, gainera. Lagun asko egin ditugu, batzuk zinemari lotutakoak; beste batzuk ez. Baina bidea ez da hemen bukatzen, hurrengo hilabetetan atzerri-ra joango gara eta gainera hasi dira jartzen pelikula Canal Plusen. Estresa? Bai, baina gustura.



_kultura


_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak




ZINEMA
LA GRAN FAMILIA ESPAÑOLA
Txetxu Urkijo.

"...Zorioneko ezkontzaren kariaz, zenbait pertsonaia elkartuko dira eta, euren interakzioei esker, apurkabada ere, zuzendariak pistak eskainiko dizkigu "puzzle" bihurri hau osa dezagun..."




LITERATURA
GALERNA
Irati Maraño.

"...Sentimenduen galerna esplosio bat da nobela hau, literatura-dosi txiki bizi bat, motxilan sartu eta hondartzan, itsasoko haize gozoa lagun, irakurtzeko oso aproposa..."



LITERATURA
RAYUELA
Itziar Senra.

"...Eleberria ez da bakarrik amodio eta desamodio istorioa, jazzaren, deserriaren miseria, bizitza bohemioa... ere bada..."



ZINEMA
PACIFIC RIM
Lande Arteaga.

"...80ko hamarkadaren akziozko pelikulen eguneratze baten aurrean gaude; kalitatezko akzio eta abentura pelikula bat..."



Antzinako jostailu batzuk Argazkia: Adratan elkarte

Antzinako jolasen erakustaldia egingo du Adratanek

ERREDAKZIOA | Iñar Mendiguren Cosgaya.

Igandean antzinako jolasen erakustaldia egingo dute Urduñan. Eki-mena Adratan elkarteak antolatatu du. Goizeko hamaiketatik aurrera egongo dira Foru plazan.

Umeek plazan jolasten ez zutelako abiatu zuten antzinako jolasen bilketa. Herriko ikastetxeekin elkar-lanean, apirilean Urduñako umeba-

koitzari jolasak biltzeko fitxa bat eman zioten. Zeregin horretarako, Urduñako herri ikastetxea eta Antiguako Ama eskolaren laguntza jaso zuten. Izan ere, ikasle guztiei jolasen inguruko informazioa biltzeko orria banatu zieten.

Era horretan 60 bat jolasen izenak, deskribapenak, arauak eta

anekdotak jaso dituzte. Helburua, umeek guraso eta aiton-amonekin hitz egitea zen.

"Interesgarria ez zen jolas bilketa, umeek parte hartzea horretan baizik", azaldu dute Adrataneko kideek.

Haur bakoitzari jolas bakoitzeko zozketan parte hartzeko zenbaki bat eman zioten: "Maiatzean kultur etxean egin genuen hori, antzinako jostailuen erakustetarekin batera".

Ikerketaren bigarren fasea

Ikerketaren bigarren fasea igandean egingo duten erakustaldia da. Aurreratu dutenez, batetik, zaku eta uztai lasterketa egingo dute. Bestetik, tabak, piñatak... egongo dira.

Bitxikeriez galdetuta, jolasak baino izenak direla bitxiak diote antolatzaileek: "Lurrean klarionarekin lauki karratu eta zenbakiak jolasten den 'Rayola' jolasari 'Tangala' deitzen zioten Urduñan".

Aurrera begira, Urduñako antzinako jolasen liburua argitaratzea dute buruan.

Transmisioa helburu

2010ean sortu zen Adratan etnografia taldea. Alde batetik, belau-naldien arteko transmisioa bermatzeko. Bestetik, ikertzaileei laguntza eskaintzeko.

Antzinako jolasekin amaituta koan, Urduñan egon ziren ogibideen katalogoa egitea gustatuko litzaieke.

Hala ere, informazio asko dagoe-la-eta, edukiakudeatu arte denbora luzea beharko dutela adierazi dute.

Siroka taldeak kontzertu akustikoa aurkeztuko du urriak 11an Keskan

Iñigo Pagazaurtundua eta Maria Rivero Siroka taldeko kideek Sirokakustikoa proiektua aurkeztuko dute datorren ostiralean Laudio-ko Keska tabernan.

Egitasmoan Siroka taldean jotzen dituzten abestiak jorratzen dituzte, bertsio akustikoak sortuz. Laudion emango duten kontzertua bigarren izango da, Donostian jo baizuten lehenbizikoz.

Tino Soriano argazkilari ospetsuak ikastaro bat emango du Aiaran

Tino Soriano *National Geographic*eko argazkilari profesionalak ikastaroa eskainiko du urriaren 18tik 20ra Aiaran. Tailerra Blackkamara argazkilari taldeak antolatu du. Formakuntza saioen izenburua "Argazki erreportajea: estiloa eta begirada" da. Ikastaroak 150 euroko prezioa du, eta izen ematea aurrez egin behar da 649431587 telefonoan.

Santa Lucia abesbatzak Bartzelonako Familia Sakratuan abestuko du

Laudioko Santa Luzia abesbatzak Bartzelonako Familia Sakratuan kontzertua eskainiko du urriaren 25ean.

Bartzelonako La Lira orfeoia eta udalak gonbidatu dituzte bertara. Guztira, bi emanaldi izango dituzte; urriaren 26an, Sant Cugat del Valles monastegian kantatuko baitute La Lira abesbatzarekin batera.



KOLDO
Ulibarri Orueta
FILOLOGOA

_Lurpetik

Antzina umeen sorkuntza bultzatzeko erreminta zen asperraldia. Besteok egur bat ikusten dugun tokian eurek beisbol makila edo ezpata darabilte

Orain telebistan ikusten denez, edari markak jolas tradizionalak bultzatzeko ekimenean dira, antzinako jostailu sinpleak berraurkitzeko gonbitea egiten. Eta haxe bera da ADRAten elkarteak datorren urriaren 6an egingo duena (edari markaren parte hartzerik gabe, guk uste...): umei antzinako jostailu eta jolasekin olgatzeko aukera.

Izan ere, gure gurasoak eta gu geu dibertitu gaituzten jolasak galduz doaz, ez gaurko umeek jolasten ez dakitelako —ez nuke "abuelo cebolletas" (galdetu nagusiei) baten antzik hartu nahi—, olgetako ohi-turak aldatu direlako baizik: haurrek jostailuak badituzte (gehienetan erosiak), euren jostailuak sortzen ibili barik.

Egungo pedagogietan zeinuen sorkuntza bultzatzeko ekimenak ugaltzen dira, baina hau bultzatzeko beharrezko duten gauzarik garrantzitsuena ahazten dugu: aspertu behar dira. Antzinatik umeen sorkuntza bultzatzeko erreminta zen asperraldia; honela, besteok egur bat ikusten dugun tokian eurek beisbol makila edo ezpata darabilte.

BIDEKO JATETXEA

Lezama auzoa.
01470 Amurrio (Araba)
Telefona: 945 890 633
nfo@restaurantebideko.com
www.restaurantebideko.com



_kirola

FUTBOLA

“Athleticen jarraitzea gustatuko litzaidake; nire ametsa da eta horretarako borrokatuko dut”

UNAI ALBIZUA (Laudio, 1989) Athleticen lehenengo mailan ari da jokatzen. Eserlekuetatik zelaira pasatzeko errotazioetan sartzea du erronka; “baina taldean konpetentzia handia dago eta zaila izango da”.

ERREDAKZIOA   I Gentza Garcia

UNAI ALBIZUA Athletic-eko lehenengo mailako jokalaria da. Taldea eta bere burua nola ikusten duen azaldu du.

Entrenatzailea eta hainbat aldaketak iritsi dira taldera. Zein da 2013-14 denboraldirako xedea?

Europarako txartela eskuratzeari emaitza ona litzake. Hala ere, beste talde asko ere horretarako ondo prestatuta daude.

Niri errotazioetan sartu eta minutu batzuk izatea

gustatuko litzaidake; baina konpetentzia handia dago taldearen barruan eta zaila izango da. Deialdietan 18 jokalarik sartzen gara, eta 3 aldaketa bakarrik direnez batzuk jokatu gabe geratzen gara.

Filialetik lehenengo mailarako jauzia handia da. Zeinalorretan sumatu duzu ezberdintasun edo zailtasun gehien?

Lehen mailan jokatzen den abiadura 2B mailakoa baino askoz handiagoa da. Futbola irakurtzeko eta jokaldiak egiteko mugimenduak egiteko abiadura askoz handiagoa da.

Athleticen zaudenean prestakuntza eta formakuntzaren helburua lehen mailako jokalaria izatea da. Beraz, iristen bazara presio edo karga hori jasotzeko gutxi gorabehera prestatua zaude.

Athleticekin zelaian minutu gutxi batzuk urrea al dira?

Bai, noski. Lehenengo mailako liga elitea da. Munduko jokalarik onenak daude eta minutu batzuk izatea urrea dira.

Athletic taldeak zalego handia izan du beti. Hala sentitzen al duzu zuek ere aldagela barne-tik?

“Lehenengo mailako liga elitea da. Munduko jokalarik onenak daude; minutu batzuk izatea urrea da”

Aldagela barruko giro eta dinamika oso ona da. Azken finean herrialde eta mota berdineko jendea gaude eta hori aldagela sentitzen da. Zaleekin dugun konexioa betidanik egon da eta betirako izango da.

Zer iruditzen zaizu San Mames berria?

Ikusgarria da, nire ustez bukatzean munduko zelairik onenetarikoa izango da. Zaharrarekin konparatuz modernoagoa da, handiagoa.

Duen akustika izugarria da, jendeak hitz egitean izugarri entzuten da.

Bankilloan sekulako tentsioa egoten da, guztia entzuten delako.

Partida ikusten zaudenean krixton tentsioa izaten dugu, ezin baitugu ezer egin. Beroketak egiten edo zelaian lasaiago egoten da.

Alavesen fitxaketa izatetik Athleticekin geratzera igaro zara.

Aurrerapausoa al da zure karre-ran?

Bai. Alavesera joatea ere aurrerapauso bat izan zen. Negoziazioak okertu egin ziren, eta azkenean ezinezkoa izan zen. Hala ere, gustura nago.

Neguko merkatuan Lezama-tik ateratzea aukeren artean al dago?

Ez dakit. Posiblea da. Futbolaren munduan hilabete gutxi asko dira.

Jokatzean ditudan aukeren eta klubaren asmoen arabera ikusiko da non bukatzen dudan.

Aspaldi utzi zenion C.D. Laudio-ko jokalaria izateari. Nolako aukerak sumatzen dizkiozu klubari Liga eta Kopan?

Kopan egiten ari diren lana oso ona da.

Ligan, Lezaman Bilbao Athleticen aurka ikusi nituen eta oso talde ona iruditu zitzaidan; 2B mailako kategoriari eusteko gauzak ondo egiten baditu ez dut uste arazorik izango dutenik.

Errege Kopan Athletic - Laudio partida egokituko balitz arraroa egingo litzaidake. Birritan bakarrik jolastu dut bakarrik, hirugarren mailan nengola.

Hurrengo urtean nola ikusi nahiko zenuke zeure burua profesionalekin?

Athleticen jarraitzea gustatuko litzaidake; ez hurrengo urtean, bizi-tza osoan baizik.

Nire ametsa da eta horretarako borrokatuko dut.

FUTBOLA:

Asteburu gazi gozoa eskualdeko futbol taldeentzat

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren

Asteburuko partiden emaitzek zapo gazi-gozoa utzi dute futbolariengan. Emakumezkoen futbol ligan, Urduñarrek 2-3 galdu zuten Basauritar taldearen aurka Arbi-to zelaian.

Laudioko nesken taldeak, aldiz, 1-7 irabazi du Nanclaresen aurka jokatutako norgehiagoka.

Gizonezkoen kategorian, berriz, Amurrio futbol klubak garaipena lortu zuen larunbatean herriko Basarte zelaian. Zalegoa alde zuela, 3-1 irabazi zion Durango taldeari.

Adierazi dutenez, ordea, ez zen erraza izan. Izan ere, epaileak bi jokalarikanporatu zituen zelaitik, eta bederatzi futbolariekin bukatu zuten partida. Golen egileak Rebello eta Diaz izan ziren.

Laudio futbol klubari Carabanchelen (Madril, Espainia) egokitu zitzaion Puerta Bonita taldearen aurka aritzea. Madrilدارrek ez zuten aukerarik galtzen utzi, eta 1-0 bukatu zen partida.

Ondorioz, 2B mailan 18. postuan kokatu da talde aiaraldearra. Igaro diren sei jardunaldietan azken lau partidak galdu egin dituzte.

Ohorezko Gazteak kategorian, bai Amurrio eta baita Laudio emaitza onak lortu dituzte. Amurriarrek 9-0 garaitu dute Irubatz taldea. Laudiarrek, aldiz, 1-0 gailendu dira Arabar Errioxaren aurka.

Errege Kopan, Laudio aurrera

2B mailara igotzearekin batera Errege Kopan lehiatzeko aukera lortu zuen Laudio futbol klubak.

Momentuz, bi partida jokatu dituzte. Real Union eta Ecija taldeen kontrako kanporaketetan irabazle atera dira.

Hortaz, bigarren fasera igaro da eskualdeko taldea.

Hurrengo partida urriaren 16an jokatuko du, Olimpic de Xativa taldearen aurka, asko du jokoan talde laudiarrek.



Etxegorri
Casa Rural Landetxea

Urigoiti 8, Orozko
www.etxegorri.org
info@etxegorri.org
Tlfnoa: 636 96 70 66

CASA RURAL **ARTIÑANO ETXEA** LANDETXEA



Beraza Auzoa 4, Orozko (Bizkaia) 675702320 www.artiñanoetxea.com - info@artiñanoetxea.com

_kirola

TXIRRINDULARITZA: Arabako txirrindulari gazteen proba jasoko du larunbatean Amurriok

Amurrioko Txirrindularitza elkarteak bizikletazale infantilak, alebinak eta jubenilak kirolera lotzeko proba antolatu du larunbat honetarako. Zita, 11:00etan jarri dute, zezen-plaza ipintzen duten tokian. Helburua, kirola sustatu eta gazteak elkar eza-gutzea da.

MENDIA: Igande honetan egingo du Orozkoko 25. iraupen martxa Itxinape mendi taldeak

Igandean, urriaren 6an izango da Orozkoko Itxinape mendi taldeak urtero antolatzen duen mendi ibilaldia. Mendizaleak 07:30ean aterako dira Zubiaur enparantzatik. Ibilbide txikiak 20 kilometro ditu eta handiak 40. Izen ematea aurrez egin behar da www.itxinape.com webgunean.



HOCKEYA: Ganbegi 6-2 taldeak bigarren postua eskuratu du aurtengo Euskadiko Kopan

Ganbegi Hockey taldea txapel-dunorde geratu da Euskadiko kopa. Atletico San Sebastian taldearen aurka egokitu zitzaion finala. Partida hutsean bukatu zuten. Ondorioz, penalti edo strock jaurtiketetan erabaki zen txapel-duna. Donostiarrek 6-7 irabazi zuten.



Iñaki


Isasi
TXIRRINDULARIA

_Helmugari so

Non egongo da erreferentziatzat hartzeko euskal txirrindularitza taldea?

Azken egunetan kirol arlo guztietan ahoz aho dabilen Euskaltel txirrindularitza taldearen desagerpena. Taldea osatzen dugunontzat, eta euskal txirrindularitzarentzat momentu tristeak dira hauek. 13 urte bete ditut Euskaltel-Euskadin, baina aurretik ere, taldea nire bizitzako parte izan da. Txirrindularitzan hasten nengoela, hor zegoen Euskadi taldea, amets bezala. Beranduago, ametsa, errealtate bihurtu zen. Zer gertatutako da hementik aurrera gaur egungo gazte horien amets eta helburuekin? Non egongo da erreferentzia-tzat hartu beharreko euskal txirrindularitza taldea? Etorkizun latza ikusten dut euskal txirrindulari gazteentzako.

Horien artean dago Jon Larrrinaga amurriarra. Bere profesionaletako lehen urtean bi lasterketa irabazi eta maila bo-robila erakutsi arren, Euskadi Fundazioko taldea ere desgertzeko arriskuan egoteak lan handia suposatuko dio Joni hurrengo urterako talde berria aurkitzeko. Ez merezi ez delako, baizik eta talderik ez dagoelako. Zortetik handiena, Jon! Antzeko egoeran aurkitzen dira langile zintzoak izan diren Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak. Eta baita taldea osatzen dugun beste guztiok ere. Horien artean, aurten galdu dugun Rufino masailaria. Zer pentsatuko luke, euskal txirrindularitza bultzatzeko hainbeste lan egin ostean, Euskaltel desagertzen ikusiko balu?



Laudioko mendietan zehar egingo dira probak Argazkia: Aiaraldea Raid

RAID: Aiaraldea Raid txapelketa egingo dute larunbatean, lehenbizikoz

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

Mendian zehar oinez, korrika eta bizikletaz ibili, kaleetatik galdu gabe batetik bestera joan, eskalatu, arku batekin tiro egin, eskiatu, kanoan ibili... Lehiaketa gutxitzen izango da naturaz eta kirolaz gozatzeko modu eta aukera abenturako raidetan beste.

Zapato honetan, gure eskualdean modalitate hau bertatik bertara ikusteko parada izango da, Aiarra Spiuk Raid Taldeak Laudion antolatuko duen Aiaraldeko I. Raidari esker. Raida proba bakar batean hainbat "abenturako" kirol biltzen dituen kirol-modalitate bat da.

Proba bakoitzak kirol ezberdinak izan ditzake (oinezko lasterketa, btt, eskia, ur-kirolak, eskalada...), denak ere taldeen orientazio- eta erresistentzia- gaitasuna frogatzeko modukoak.

Abenturako raidak taldeka jokatzen dira eta parte-hartzaileek ezin dute kanpoko laguntza jaso, autonomoak izan behar dute, ezta motordun ibilgailuak erabili ere.

Raiden ezaugarri berezietako bat da ibilbidea ezin dela aurretiaz jakin; sekzio bakoitzaren irteera eta helmuga bitartean kontroleko puntu batzuk daude, eta batetik besterako ibilbidea librea da. Hau da, talde bakoitzak bere ibilbidea aukeratu dezake, betiere kontrol-puntuetatik igarotzen bada. Taldeak erabaki dezake kontrol-punturen batetik ez pasatzea, batzuetan ez baita derri-gorrezkoa, baina horrek puntu gutxiago pilatzea ekarriko dio.

Ibilbidea aukeratzeko ezinbestekoak dira mapak; ez dago seinale-rik bidean eta. Hortaz, mapa eta iparrorratzaren laguntzaz, taldeak gai izan behar dira ibilbidea ahalik eta arinen egiteko.

Sei kirol, 50 kilometrotan

Laudion zapatuan egingo den probaren kasuan sei kirolen erakutsi beharko da trebetasuna: mendiko bizikleta, trekking, hiri orientazioa, espeleologia, rapel-tirolina eta punteria-proba bereziak.

Hori guztia lau sekziotan banatuko da. Lehenengoan hiri-orientazioa eta punteria-probak egin beharko dituzte. Bigarrenean, mendiko bizikleta eta eskalada. Hirugarrenean trekking, rapel eta espeleologia eta

amaitzeko mendi bizikletarekin igarotzeko ibilbidea.

Guztira, 50 km inguru bete beharko dituzte parte-hartzaileek, gehie-nez 7 ordutan eta proba guztiak bez-tez. Proba nagusiaz gain, easy-raid izeneko ere jokatuko da, distantzia laburrago batean.

Kategoriei dagokienez hiru maila egongo dira. Batetik, emakumez-koena. Bestetik, gizonezkoena. Eta, azkenik mistoa.

Aurreratu duenez, dagoeneko 20 taldek eman dute izena. Horien artean, Burgoseko, Sopelako eta Artziniegako taldeak daude.

Lasterketa goizeko hamarretan hasiko da, parte-hartzaileei azalpen teknikoa eman ondoren. Helmuga zazpi ordu geroago itxiko da, arratsaldeko bostetan.

Aaron Garmendia antolatzailearen hitzetan, lehenengo taldea 15:00 aldera heltzea aurreikusten dute.

Herria, ekitaldiz blai

Alabaina, dena ez da txapelketa izango. Lehia baino abentura bila doazenek Easy-raid proba egiteko aukera izango dute. 11:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da.

Arratsaldeko seietan, ordea, parte-hartzaileentzako herri bazkaria egongo da. Horretarako, Al-dai plazan jarriko duten karpa erabiliko dute.

Kirikiño aisialdi taldeak arratsaldean zehar tailer eta jolasak egingo ditu. Sari banaketa, 19:00ak aldera egingo dute.

Aiaraldeko I. Raida baliagarria izango da Columbia Raid Series zirku-iturako.

Gardea auzoa,
LAUDIO
Araba



www.beldui.com



GERNÍKA
food and drink

PLAZA GERNIKA, 6
ORDUÑA

945 383 967

www.gernikafoodanddrink.com

_Herriko plaza

_agurrak



Andere
Ugarriza Lado

Unibertsitatean Santanderren hasi duzun karrera berri honetarako zorte on Andere! Faltan botako zaitugu!



Beñat
Fernandez Iturbe

Urriaren 9an, 4 urte! Zorionak, txapeldun, eta urte askotarako. Muxu potolo eta handi bat etxe-ko guztien partetik



Judith
Uriarte

Irailean joan zitzaigun Judith Uriartek. Gazteoi, emakumeoi, senideei, lagunei... emandako babes eta maitasun guztiagatik eskerrik asko Judith! Oso polita izan zen Garrastatxun egindako agurra... Baita utzitako irakaspena ere; hodeiek estali arren beti dago eguzkia!



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera

_botikak

URRIAK 3

Laudio: AIS (Gasteiz 2)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 7)

URRIAK 4

Laudio: RIVERA (Ibaizabal)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu)

URRIAK 5

Laudio: FUERTES (Ardantzazar)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu)

URRIAK 6

Laudio: FUERTES (Ardantzazar)

Amurrio: QUIJANO (Landaburu)

URRIAK 7

Laudio: SOLAUN (Lamuza)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo)

URRIAK 8

Laudio: MENOYO (Ugarte)
Amurrio: PEREDA (Landako)

URRIAK 9

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)
09:00 a 19:45

URRIAK 10

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

URRIAK 11

Laudio: AIS (Gasteiz kalea 2)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 7)

URRIAK 12

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Artziniega:
FERNANDEZ (Encina 7)

URRIAK 13

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 7)

URRIAK 14:

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 7)

URRIAK 15

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

URRIAK 16

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

URRIAK 17

Laudio: SOLAUN (Lamuza)
Amurrio: PEREDA (Landako)

GUARDIAKO FARMAZIAK:
2.500 biztanleetatik beherako udal-erriek ez dute guardiarik egiten.



**Gure Hizkuntza,
Gure Elikadura,
Gure Mundua**

**BERTSO JAI
AGROEKOLOGIKOA**

**JON MAIA
&
MAIALEN LUJANBIO**

**Urriak 5
Urduñan**

AGROBERTSOAK MERKATUAN (12:00etatik aurrera Foru enparantzan)
BERTSO POTEQA (13:00etatik aurrera)
BERTSO BAZKARI AGROEKOLOGIKOA (15:00etan Eskola publikoan)

Laguntzaileak:   

Antolatzaileak: 

Kolaboratzaileak:
Urduñako Eskola pertsona
Urduñako Gasteiz Aldeak
Bertanekoak: Berriz, Aiz, Kukumari, Beldarri, Alabaz, Urduñako Zaporeak, Oihen eta Urduñako Kultur erakundeak

Bazkarirako txartel kopuru mugatua
Prezioa: 12 €
Sarrerren salmenta:
Urduñako: Turismo bulegoan
Marrakiz eta Mugalde tabernetan

Informazio gehiago: **94 496 11 75** euskadi@vsf.org.es

_merkatu txikia

ALOKAIRUAN

PISUA GASTEIZEN
San Ignacio de Loyola kalean
60 metro karratu.
2 logela
550 €
653718732
astakirota@gmail.com

PISUKIDE BILA GASTEIZEN
Bolivia kalea 12
berogailua zentrala
Prezioa: 250 €
605744646

LOGELA GASTEIZEN
Eulogio Serdan kalea
Oso ongi kokatua
Prezioa: 200 € + gastuak
609594637
serdan@gmail.com

SALGAI

ART ZAPATAK
Bigarren eskukoak
39 zenbakia egoera onean
60 € (negoziagarria)
669700987 (Gasteiz)

ASTO EMEA
Durango.
4 urte ditu eta
mantsoa da.
Hesi elektrikora eta bi ilarako
alanbrera ohitua.
Prezioa: 280 €
635-70 03 90.

ARKUME LATZA BELTZA
Karrantza (Bizkaia)
5 hilabeteko bildotsa
Latza eta beltza. Arra.
Prezioa ez dago finkatuta.
665754313

UMEAK ERAMATEKO MOTXILA
Durango (Bizkaia)
Prezioa: 50 €
Red castle sport umeak eramateko
motxila salgai.
iragarkilaburrak@bertako.net

BIZIKLETA TOLESGARRIA
Donostia
20'twenty markakoa,
6 abiadurakoa, aluminiozkoa,
promox frenoak,
gurpilak 20",
11kg eta txirrinarekin.
Nahiko berria 100 €
iragarkilaburrak@bertako.net

HOZKAILUA SALGAI
Durango (Bizkaia)
Balay 3feb2215 markakoa
Neurriak: 140x60x60.
Egoera onean.
Lau urtez erabili dugu.
Prezioa: 150 €
659-42 58 90

LAN ESKAINTZAK

UMEAK ZAINTEZKO PERTSONA
lurretan pertsona bat behar da,
goizetan umea haurtzaindegira

eramateko, eta gaixo
dagoenean zaintzeko.
659-15 08 50

TXISTU IRAKASLEA.
Aramaio (Araba)
Datorren ikasturterako
605-74 80 87 / 945-44 54 84

LAN BILA

ESKOLA PARTIKULARRAK
Durangaldea
Ekonomian lizentziatuta
Masterduna. EGA eta First.
635-74 67 98

BILA

ZEHARKAKO TXIRULA
Gernika-Lumo (Bizkaia)
Bigarren eskuko zeharkako
txirula bat erosi nahian nabil.
Yamaha yfl-281 delakoa.
zerrenda@yahoo.es

ZERBAITEN BILA
BAZAUDE EDO
ZERBAIT ESKAINTZEN
BADUZU, HONA
HEMEN ZURE TXOKOA:

iragarkilaburrak@aiaraldea.com
Tel: 94 656 85 54
WhatsApp: 688 848 152

_herriko plaza

_egunez egun

10.04 OSTIRALA 19:00 LAUDIO HITZALDIA Errepresioaren aurkako jardunaldiak Orbeo etxean 19:30 OKONDO IRABIENEO JAIAK Puzgarriak, musa, odoloste jana eta berbena Irabien auzoan 19:30 OROZKO BATZARRA Donibane aretoko egitaraua osatzeko batzarra Orozkoko museoan 20:00 LAUDIO IKUSKIZUNA ikas-bidaiaren aldeko desfilea Antzokian 22:00 LAUDIO ANTZERKIA La esclusa Orbeo etxean 23:00 LAUDIO KONTZERTUA Killer kume eta La hora primate Drumgorri aretoan	15:00 URDUÑA AGROEKOLOGIA ASTEA Bertso bazkari agroekologikoa. Jon Maia eta Maialen Lujanbio 14:30 BARANBIO EUSKAL JAIA Bertso bazkaria> Andoni Egana eta Sustrai Colina Garrastatxun 18:30 BARANBIO EUSKAL JAIA Erromeria Garrastatxun 19:00 BELANDIA JAIK Suziriak eta odoloste jana Belandian 10.06 IGANDEA 07:30 OROZKO IBILALDIA XXVI.Mendi martxa Zubiaur plazatik 10:00 URDU;A AZOKA XI. AUKEREN MERKATUA Foru plazan 12:00 BELANDIA JAIK Urkide abesbatza Belandian	12:30 BELANDIA JAIK Patata tortilla txapelketa Belandian 13:30 LAUDIO KONTZERTUA Baxter Trio Iluntze tabernan 17:00 OKONDO IRABIENEO JAIK Briska txapelketa Irabien auzoan 17:00 OKONDO AISIALDIA Umeentzat jokoak eta ponnyak Irabien auzoan 20:00 OKONDO IRABIENEO JAIK "Irabienmovil" argazki erakustaldia Irabien auzoan	10.09 ASTEAZKENA 16:00 LAUDIO HITZALDIA Adinekoen zainketa Gurutze gorrian 10.10 OSTEGUNA 16:00 LAUDIO HITZALDIA Adinekoen zainketa Gurutze gorrian 10.11 OSTIRALA 19:00 LAUDIO KONTZERTUA Sirokakustikoa Keska tabernan	19:00 LAUDIO BATZARRA Fracking-aren aurkako asanblada Kultura etxean 10.13 IGANDEA 10:30 ARRANKUDIAGA IBILALDIA II.Arrankudiaga-Zollo Traila Arrankudiagako plazatik 08:00 LAUDIO IBILALDIA Batxikabora irteera Herriko plazatik 10.14 ASTELEHENA 18:30 LAUDIO IKASTAROA Feminismoa 2.0 KZ gunean Herriko plazatik 10.15 ASTEARTEA 16:00 AMURRIO HITZALDIA Adinekoen zainketa Kultur-etxean 10.16 ASTEAZKENA 16:00 AMURRIO HITZALDIA Adinekoen zainketa Kultur-etxean 10.17 OSTEGUNA 16:00 AMURRIO HITZALDIA Adinekoen zainketa Kultur-etxean
---	---	--	--	---

_ikusmiran

AMURRIO ANTZOKIA

ANTZERKI AMATEURRAREN II. ERAKUSTALDIA
AMURRIOKO AIMARA TALDEAK ANTOLATUA

08.12. LARUNBATA. 20:00etan.
"Quién mató a Julián Morales" antzezlan
Ugaoko Bidea antzerki taldearen eskutik
SARRERA: 4 euro

08.19. LARUNBATA. 20:00etan.
"Escrito en la piedra: Camille Claudel" antzezlan
Santutxuko Anima antzerki taldearen eskutik.
SARRERA: 4 euro

08.26. LARUNBATA. 20:00etan.
"Esta noche no estoy para nadie" antzezlan
La Trapera de Peralta antzerki taldearen eskutik.
SARRERA: 4 euro

_zinema

10.05. LARUNBATA.

MUD
LAUDIOKO LHUI: : 17:30ean eta 20:00etan/ 3€
12 URTE GORAKOENTZAT

10.06. IGANDEA.

"GRU II, MI VILLANO FAVORITO"
AMURRIO ANTZOKIA : 17:30ean / 3.60 €.

«LA MEJOR OFERTA»LA PROPOSICIÓN
AMURRIO ANTZOKIA : 19:30ean / 4.80 €.

10.07. ASTELEHENA.

«LA MEJOR OFERTA»LA PROPOSICIÓN
AMURRIO ANTZOKIA : 20:00etan / 3.60 €.

10.12. LARUNBATA.

"EL NOMBRE"
LAUDIOKO LHUI: 17:30ean eta 20:00etan/ 2€

10.13. IGANDEA.

«AVIONES»
AMURRIO ANTZOKIA : 17:30ean / 3.60 €.

FORMAT (LUIS VIL)
AMURRIO ANTZOKIA : 19:00etan / DOAN

«ELYSIUM»
AMURRIO ANTZOKIA : 19:30ean / 4.80 €.

10.14. ASTELEHENA.

«ELYSIUM»
AMURRIO ANTZOKIA : 20:00ean / 3.60 €.

_ezin galdu



OROZKOKO MENDI MARTXA: Orozkoko Itxina mendi taldeak mendi martxa antolatu du iganderako. Aurtengoa 25. edizioa izango da. 07:30ean aterako da plazatik iraupen luzeko ibilaldia. Izen-ematea www.itxinape.com webgunean egin behar da igandea baino lehen Info+: www.itxinape.com

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK
AIARALDEAN

OSTEGUNA
LAUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTIRALA
AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA
URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan
OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

* Hamabostaldi honetan ez dago
Azoka berezirik

PREZIO ORIENTAGARRIAK
MERKATUETAN

BARAZKIAK
Tomatea 3 €/kg
Letxuga 0.80-1 €/kg
Azalgak 2 €/kg
Lekak 2 €/kg
Frijitzeko piperra 1-1.5 €/kg
Pipermorroa 6 €/kg
Kalabaza 2 €/kg
Kuiatxoa 0.60 €/kg
Indabak 8-10 €/kg
Porrua 1.50 €/sorta

BESTEAK
Arrautzak 3 €/dozena
Gari ogia 2.30 €/kg
Idiazabal gazta 16 €/kg

_kontra

aiaraldea



Itziar
Urquijo Cela
PSIKOPEDAGOGOA
_Leihotik

Horra hor koska, ez dagoena present bilakatzea. Bizitza ez diren gauzez ere osatzen baita.

Txikitan ikasitako printzipioa, helduaroan sendotutakoa, egungo gizartean presente. Jeinutasunaren seinale edota zoramenaren ikur? Jaio eta gutxira hasten gara ez diren gauzez ohartarazten, arkaikoa den senaz fidatzen eta desiatu baina ikusten ez dugun etorkizun bat sentitzen. Bizitzaren laurden bat ematen dugu begi-bistan antzematen ez diren beldurrez ihesi. Hor dau-de mugiezin, betiereko. Ez den ideal baten bila beste laurdena. Eta azkenean hortxe da; beste itxura batekin, tinko, leial. Hirugarren laurdena, hautemangarri ez den ideia besarkatzen, errespetatzen eta defendatzen doa. Eta azkenik, laurden garra-tza dago; hemen ez dauden oroitzen, haien hutsunea sumatzen baina hor daudenena. Gertu, iraunkor.

Horra hor koska, ez dena presente bilakatzea. Azken finean, behin batek ondo azaldu zuen bezala bizitza ez diren gauzez osatzen baita.

Leyre Berrocal

“Telebistan lehenbizikoz homosexualitateari ahotza eta gorputza jartzeak poztu ninduen”

LEYRE BERROCAL (1973, Amurrio) aktore amurriarra da. Telebistan eta zineman aritua da.



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Zure bizitza noria bat balitz, non kokatuko zinateke?

Goraka sentitzen naiz, urte hasieran estreinatuko dugun proiektu edo gurdi batean ilusioz eta indarrez. Film labur eta luzeekin esperimentatzen jarraitzen dut.

Aktoreek udan zer izaten dituzue gehiago, oporrak ala lana?

Udan Bilboko Zine Eskola eta Platano Boligrafo produktio etxearekin *Ani-males domesticos* film laburra grabatu genuen. Ondoren, 16 profesionalekin Spektra Filmsek luzatutako erronkari hel-du genion: etxe batean 29orduko grabaketa egiteari, inprobisatuz. Guztiontzat erronka polita izan zen. Hortik 80 minutuko pelikula bat atera dute, “El Pri-

mer ultimo dia” izena eramango duen tragikomedia. Lander Otaolak, Gurutze Beitiak eta nik hartu dugu parte... Enteratuko zarete.

Espainiar telebistan agertutako aurreneko lesbiana izatea egokitu zitzaizun. Nola bizi izan zenuen?

Telebistan homosexualitateari ahotz eta gorputza jartzeak poztu egin ninduen.

Agertzen zen lehen aldia izango zela baneki gehiago hitz egitea gustatuko litzaidake, beste era batera antzeztu, gutxiago maki-llatu... Bakarrik gauza akatsetatik ikasten dela diote, ez? Ez nuen lar disfrutatu, pitin bat baztertuta sentitu nintzen.

Aktore gisa, zein momentuk grabatu dizute bizitza?

Ez daukat une zehatzik, momentu asko dira. Proiektu bat duzunean, esaterako, sekulako poza izaten dugu. Beste une zirraragarri bat grabaketa izaten da. Gustuko duzuna egitea egokitzea loteria jasotzea bezalakoa da. Grabake-

tak haizea alde duenean lasaitasuna, konfiantza, maitasuna eta zoriontasuna sortzen da.

Dena, ordea, ez da hain polita eta erraza. Lanbide honetan ego asko dago. Oinarria talde lanean eta pertsonaren umiltasunean dago.

Hala ere, unerik garrantzitsue-na ordaintzen dizutenean da. Hasieran, ezin nuen sinetsi niretzako jolas bat zen zerbaitegatik kobratzea. Proiektutik proiektura garrai hilak daude eta aurrezten ikasi behar da.

Aktore izan nahi dutenei zer aholkatuko zenieke?

Eskola onetara jotzeko. Nik Frantziako Philippe Gaulier gomendatzen dut. Edo, New York zein Londresekoa. Madrilen bada eskola baina jende asko dago eta lan gutxi. Ez dago industria errealek eta lanbidea ez da serio-tzat hartzen. Aurreiritzi eta kritika asko daude, casting zuzendari gutxi... Bide berriak aurkitu behar dira, mundua oso handia da!

Zure **IDEIEN** garapenerako beharrezko baliabideak eskaintzen ditugu: zure **DISEINUAREN SORTZETIK**, proiektuaren amaierako **INPRIMATZERA**



Maskuribai industrialdea, Z-10 · 01470 Amurrio (Araba)
Tel. 945 89 08 46 · adi@aiaragrafik.com · www.adizentrografikoa.com